



- **Laida Azkona**, dantzaria «Gorputza bere horretan da interesgarria, ez soilik gorputz landua»
- **Zoé Bray**, margolari eta antopologoa Artearen errealismoaz
- **1936ko Gerra** Lekuko izan zirenen oroitzapenak
- **Iñaki Antiguada**, Amaiur «Inkoherentzia itzela litzateke Madril en eguneroko politikan aritzea»



FUNTZIONARIOAK


Krisi garaiotan jomugan



argia

www.argia.com/multimedia

*bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean*




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.




Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



Film laburrak

Euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat bi astean behin. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



Deabruaren abokatua

- **Uxue Alberdi:** «Zertarako saiatu aitorpen intelektualaren bila? Emakumea naiz». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Funtzionarioak.** Beharrezkoak bai, baina bada zer hobetu. MIKEL GARCIA / 5

Pertsonaia

- **Laida Azkona:** «Dantzaria sortzailea ere bada askotan, ez makina bat soilik». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- **1936ko Gerraren lekukotzak.** Lubakietako oroitzapenetan barna. AITOR AZURKI / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Zaharkitze programatua. JOSÉ LUIS PADRÓN / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **20 N-a.** EIDER ALKORTA / 20
- **Txandan** Hauteskundeak galdu. EDU ZELAIETA / 20
- **Krudelkeria.** EDORTA ARANA / 21
- **Hiruko txikian** Tortura. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Ogiari errezitatzeko jarriak. JOANES ETXEBARRIA / 22

Erdiko kaiera

- **Zoé Bray:** «Bizitza margotzeko lohitu egin behar duzu». ITZIAR MADINA / 23
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28
- **Abarrak** JON TORNER / 29
- **lhesi Aezkoako harana (Nafarroa).** Baigura, Pirinioen gaineko talaia paregabea. GORKA AZKARATE / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Iñaki Antigüedad:** «Amaiurrek neurrian parte hartuko du Madrilén». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Justizia Saileko murrizketak.** Trebatzaileak kalean, euskara airean. IURE EIZAGIRRE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Nendo Dango: hazitik hasita mundua oihantzeko. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Diputazioak.** MIKEL IRIZAR / 50



“Zertan saiatu aitorpen intelektualaren bila? Emakumea naiz”

Uxue Alberdi | Gure Angelina Jolie

Bertsolea.
Edo idazlaria, orain ez nago seguru.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Egun berezia da gaurkoa: Erasmus belaunaldiko idazle bat elkarrizketatzen dudan lehen aldia da.

Eta? Dioten bezain politak, atseginak, sinpleak eta emakumeak al gara?

Orain esango didazu idazleak idaztea baino ez duela buruan, gainontzekoak ihes egiten dizuela.

Ez, keba, egoak ihes egingo baligu lortuko genuke idaztean soilik pentsatzea, baina bitartean egoari jaten eman behar zaio!

Bertsolaria izatea ere promozio estrategia horren baitan sartzen da?

Jakina, eta saio gutxitxo nituenez haurdun gelditu nintzen, badakizu, ezberdina izateko. Beltza eta zuberotarra izatea baino ez zait falta.

Baina bertsolari eta idazle, bi jardunak hain urrun egonik...

Elkar orekatzen dute. Plaza eta etxea, arriskua eta segurtasuna, bat-batekotasuna eta patxada, lagunartea eta bakardadea...

Afektiboki daude urrun: batzuek besteen publikoa nahi dute; besteek batzuen aitorpen intelektuala.

Idazleen artean inbidioso gehiago aurkitu ditut nik... Gainera, zertan saiatu aitorpen

intelektualaren bila? Emakumea naiz. Salbuesitako oso gutxi lortzen dute...

Aizu, azkenaldian Elkar argitaletxean denak zarete emazteak, eta gazteak, eta ederrak.

Eta idazleak. Gogoratzen? Susan, berriz, denak gizonak, serioak, hiperkritikoak. Batez ere, Eider Rodriguez gazte ederron bandora pasa denetik.

Erasmus genioen; baina, kasu, orain Interrail belaunaldikoak datoz eta.

Pozik irakurriko dut Goiatz Labandibarren lana. Azken hilabeteotan ez dut ia astirik izan, eta irakurtzeko eta idazteko desiatzen nago.

Ez nizun bizitza pribatuaz galdetu behar, baina gaia atera duzunez...

60 metro koadroko etxean bizi naiz. Estua da nire bizitza pribatua.

Estua, ez dakit, baina ez du makala behar euskal Brangelina izateak.

Nire bikotekideak ez du Brad Pitten antzik!

Eskerrak prentsa arrosarik ez dugun.

Gurea okerragoa da: kritika serio-ustekoz moztortzen ditugu txutxumutxuak! Nork ez du behar *Salvame* pixka bat? ■



Funtzionarioak

Beharrezkoak bai, baina bada zer hobetu

Krisi ekonomikoa langabeen zakua puzten eta lan-baldintzak eskasten ari dela, hainbatek funtzionarioak hartu ditu jomugan: guztion diruak ordaindutako soldatak dituzten langile horien produktibitatea zergatik da baxuagoa? Zergatik ez dute kontrolik baina bai bizi guztirako lanpostu finkoa? Zenbat dira, zenbat kobratzen dute? Funtzio publikoaren benetako dimentsioari egin diogu errepasoa, hobetu beharrekoan arreta jarriz.

MIKEL GARCIA

FUNTZIONARIO SARE SENDOA izatea ezinbestekoa da gizarteak aurrera egin dezan, balio garrantzitsuak defendatzeko jaio baitzen: segurtasun juridikoa, egonkortasuna, administrazioaren inpartzialtasuna... Privatizazio-

rako joera nabarmena bizi dugu hezkuntza eta osasuna bezalako funtsezko eremuetan eta horregatik da beharrezkoa etekin ekonomikoa helburu ez duten zerbitzu unibertsalak mantentzea. "Erakunde bezala, funtzio

Datuek diote zortzi biztanletik bat langile publikoa dela Hego Euskal Herrian.



publikoak administrazio profesionala ahalbidetzen dio gizarteari, interes partikularren menpe ez dagoena, aldian aldiko gobernuak manipulatuko ez duena. Baina horrexegatik, profesionaltasun hori bermatzeko moduan egon behar du antolatua”, diosku Francisco Longo Bartzelonako Ramon Llul Unibertsitateko irakasleak. Kudeaketa publikoan aditu, Eusko Jaurlaritzako aholkulari lanak egin ditu Longok eta funtzionarioak profesionalak eta independenteak izateaz gain, eraginkorrak izan behar dutela dio, ziurtatuz ahalik eta emaitza onenak lortzen ahalegintzen direla. Horrela al da? Aztertu dezagun hasieratik.

Oposaketekin abiatzen da dena. Azterketak aukera berdintasuna bermatzen du herriar guztientzat, baina etsamina gainditu edo hainbat merezimendu formal lortu dituenak ez du zertan lanpostu horretarako egokiena izan, Longoren ustez: “Hautaketan neutraltasuna eta berdintasuna bermatzea bada helburua, merkeagoa da zozketa bidez egitea, batzuetan probak diseinatuta dauden moduan berdin izango litzatekeelako azterketa egitea edo zozketa bidez aukeratzea”. Ez du berdin pentsatzen Ana Herrerok, funtzionarioen sindikatuko Gipuzkoako ordezkariak. Bere hitzetan, oposaketek alderdi asko hartzen dituzte kontuan, ez bakarrik jakintza maila: “Hezkuntza arloan, esaterako, probak teorikoak eta praktikoak egiten dira, ahozko aurkezpena tribunal baten aurrean, klasea ematen egongo bazina bezala... eta aukeratzten dituztenak kualifikatuta daude dagozkien lanpostuetarako”. Aldiz, Pablo Crespo funtzionarioak onartu digu hutsuneak ikusten dizkiola hautaketa sistemari eta kasu batzuetan edukien mesedetan giza-baliabideen saila desagertu egiten dela, ez dela behar bezala baloratzten kudeaketarako edo nagusi izateko ahalmena.

Praktika gehiago, elkarrizketak, simulazioak, proba psikometrikoak... barneratu behar direla argi du Longok, onenak fitxatu nahi dituzten enpresek egiten duten gisan. Hainbat herrialdetan, meritua sistema izan arren, oinarria ez da ‘nola’ hautatu, ‘zeinek’ hautatu baizik. “Gure hautatzaileak funtzionario eta politikariak dira; gai batzuei buruz jakin dezakete, baina hautaketaz ezer ez. Sortuko bage-nitu organo profesional eta independenteak, lortuko genuke metodoak egokitzea”, azaldu du Bartzelonako irakasleak.

**“Zuzendaritza esparru
burokratizatua da, iruditzen
zaigulako edozein funtzionariok
balio duela nagusi izateko edo, are
okerrago, alderdi politikoek
kolonizatuta dago”**

FRANCISCO LONGO, GESTIO PUBLIKOAN ADITUA

**“Langile Publikoaren Oinarrizko
Estatutuak produktibitatea
helburuen arabera neurtzeko
sistema jasotzen du, baina ez da
aplikatzen”**

ANA HERRERO, FUNTZIONARIOA

Produktibitatearen kontrola

Dirutan, enpresa pribatuak baino produktibitate txikiagoa du publikoak, eta akaso ez zaio horri begiratu behar, etekin ekonomikoa ez baita xedea, baina bai langile publikoek ahalik eta eraginkorren jokatzeari. Horretarako, kontrol sistemak ezarriko dituztela adierazi dute hainbat gobernuak, baina egon badago jada diziplina-erregimena, falta tipifikatuak barne. Ez dela aplikatzen, horra arazoa, funtzionarioen beraien esanetan. “Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatu beharko litzateke, besteak beste helburuetan oinarritutako produktibitate sistema jasotzen duelako eta hortaz irizpide objektiboak ezarri ditzakeelako, baina zehaztea eta arautzea falta da”, kexu da Ana Herrero. Horren ordean, zuzendaritzatik sarri nahierara banatzen omen da lana eta sol-

data, neurgarri ez diren irizpideen arabera, eta ondokoak –edo ondoko departamentuak– baino lan gehiago egin eta gutxiago kobratzen duena erre egiten da azkenean. “Ondo ari dena saritu beharko lukete eta gaizki ari dena zigortu, baina ez da hala egiten, eta motibazioa galtzera eramaten dezake. Gipuzkoako Ordezkariordeztan, esaterako, soldaten banaketari buruzko informazioa eskatu dugu eta uko egin digute, sekretupean mantentzen dute ez dagoelako irizpide objektiborik; auzitan gaude”, gaineratu du Pablo Crespok.

Finean, sarri guztiaren atzean zuzendaritzaren gaitasun eza dagoela uste dute bi funtzionario hauek. Nagusi karguetarako, kolore politikoagatik, laguntasunagatik edo apetaz aukeratutako izen asko dagoela diote, eta jende horrek gutxitu egiten duela funtzionarioen eraginkortasuna, irudi txarra ematen diela. “Krisiarekin, iaz apenas eskaini zen plaza berririk funtzionario izateko, baina kurioski, izenda-

pen askeko karguek %30 egin zuten gora aurreko urtearekiko. Beraz, krisiari aurre egiteko modua oso erlatiboa da, funtzionarioen soldadak baxuak diren bitartean zuzendaritzako enak garestiagoak direlako. Piramidea estutu egiten dute behealdean, eta goialdean putzu”, dio Crespok.

Enplegu publikoan zuzendaritza profesionalizatu beharraz ere mintzo da Longo, zuzendari onak ez dauden lekuan ez dagoelako langileen kudeaketa onik. “Burokratizatuta dagoen esparrua da, iruditzen zaigulako edo-



Oposaketetako hainbat proba diseinatuta dauden moduan, berdin izango litzateke azterketa egitea edo funtzionarioa zozketa bidez aukeratzea, Francisco Longoren iritziz. Ana Herrero funtzionarioarentzat aldiz, kualifikatutako jendea hautatzeko sistema egokia dira oposaketak. Irudian, Osakidetzarako probak, BECen.

zein funtzionariok balio duela nagusi izateko edo, are okerrago, alderdi politikoek kolonizatuta dago zuzendaritza”. Praktika malguagoak premiazko ikusten ditu alor guztietan: hautaketa konpetentziengatik egitea, ez soilik proba memoristikoen bidez; lanak malgu diseinatzea; mugikortasun funtzional eta geografikoa erraztea; pizgarriak ematea errendimendu onari... eta egindako lana ebaluatzea. “Ebaluazioa oso garrantzitsua da, baina ez kontrolatzeko edo zigortzeko, baizik errendimendua hobetzeko. Ebaluatu gabeko lana orokorrean indarra galtzera jotzen duen lana da eta enplegu publikoko sektore askotan ez da inongo ebaluaziorik egiten. Irakasleak bere lana hobetu dezan, adibidez, aztertu

beharko lirateke bere ikasleen emaitzak, irakasleak berak egin duen ibilbidea, familiekin duen harremana, prozedurak berritu al dituen...”.

Antzeko erreformeak heldu diete Europa Iparraldeko herrialde ugari: helburuen arabera ordainketa sustatu eta leku batetik besterako langileen mugikortasuna erraztu du Alemaniak, sektore publikoaren eta pribatuaren baldintzak berdintzera egin du Holandak, 200 proiektu zehatz jarri ditu martxan Finlandiak, kontratazio sistema aldatu du Irlandak... Kasu kasu ikusi beharko litzateke, hori bai, erreformaren eta malgutasunaren izenean zein neurritan izan diren ondorio murrizketa eta lan-baldintza kaskarrak.

Atxurra Hotela

Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com




Gurean, oso antzekoak dira Frantzia eta Espainiako estatuetako funtzionariotza ereduak. Europar Batasunarekin konparatuta, Espainiako Estatuan sektore publikoko langileek batez bestekoa baino zertxobait gehiago kobratzen dute eta ordu gutxiago ematen dituzte lanean, baina arazoa kalitatean dago, Francisco Longoren aburuz: “Plazen gehien-go handia gutxi kualifikatutako lanak dira. Muskulu handiko baina inteligentzia gutxi administrazioa daukagu. Eta horrek ere produktibitatearen gainbehera dakar”.

Eusko Jaurlaritzak berak agindutako ikerketa batek ere ezbaian jarri du sektore publikoaren eraginkortasuna. Txosten horren arabera, Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek eskaintzen dituzten zerbitzuak bikoiztu egiten dira askotan, alferrikako lana errepikatuz eta zerbitzuetan zailtasunak gaineratuz edo atzerapenak eraginez. Alegia, administrazio publikoko egiturek beraien artean talka egiten dutela eta ondorioz 403 milioi eurotik gorako gastu soberakoa dagoela dio txostenak.

Betiko

Historikoki, osasun demokratikoaren isla gisa jaio zen bizi guztirako lanpostua, garaian garaiko agintariek jendea nahierara alda ez zezaten. Haatik, alderdikeria ez dela guztiz saihesten dio Herrerok, zuzendari asko izendapen askeko karguak direlako. Gainerakoa, funtzionarioen postua betiko izatea egoki iruditzen zaio, profesionaltasuna dakarrelako, hasierako kualifikazioari esperientziak espezializazioa gehitzen diolako. Hala ere, Ana Herrerok gogoratu du Langile Publikoaren Oinarritzako Estatutuak jasotzen duela funtzionarioa kanporatzeko aukera, hiru falta larri eginez gero. Kontua da estatutua ez dela aplikatzen, arestian aipatu bezala.

Longorentzat, funtzio publikoa egonkor izatea ez da arazoa, egonkor kontzeptuak bizi guztirako esan nahi duela pentsatzea baizik: “Kataluniako Enplegu Zerbitzuan 1.800 bat langile ari dira oraintxe bertan, duela bost urteko kopuru bera, baina duela bost urte enplegu beteko egoera genuen. Horrek zer esan nahi du? Egoera dena delakoa ere, postuak mantendu egiten direla testuingurua kontuan hartu gabe, egonkortasunaren ikuspegi zurrunegiaren ondorio. Lan egonkorra

izan dezakezu, baina ingurumariaren arabera lan hori beharrezkoa ez denean, ezin zaio eutsi”.

Gehiegi?

Datuek diote zortzi biztanletik bat langile publikoa dela Hego Euskal Herrian. Funtzionario kopuruari dagokionez, Europar Batasunak 2008ko datuekin kaleratutako

txostenaren arabera, erdialdean geundeke. Gailurrean, Suedia (biztanleriaren %12,36 da funtzionario), Finlandia (%10,60) eta Letonia (%10,50) daude, tartean Frantziako (%8) eta Espainiako (%5,56) estatuak, Italia (%5,77) edota Alemania (%5,47), eta funtzionario gutxien dituztenak Txekiar Errepublika (biztanleriaren %0,93), Errumania (%0,78) eta Eslovakia (%0,74) dira.

Kopurua baino, Longori joera egiten zaio kezkagarri. European oro har funtzionarioak gutxitzen ari direla dio, baina Espainiako Estatuan izugarri igo direla eta bide horri eusten zaiola.

Aldiz, Suedia eta Finlandia maiz eredu direla aintzat hartuta, hoberen antolatuta dauden gizarteak funtzionario gehien dituztenak direla azpimarratu du Herrerok: “Funtzionaritza sendoa izatea zerbitzu hobeen seinale da; ongizatearen estatuak jende espezializatua eskatzen du, hezkuntza ona eskaintzeko, osasun zerbitzu onak, behar bezalako harrera...”. Horregatik, funtzionario gehiago behar direla uste du Cres-

pok, jendeak pentsa dezakeelako gehitxo ez ote dauden, baina gero justizia geldi doalako kexatzen dira. “Baliabideak ez dira nahikoa eta konponbidea ez da daudenei lan eskerge ematea, langile gehiago hartzea baizik”. Hain zuzen, hezkuntza eta ospitaleetan funtzionario ez diren langile publikoen murrizketengatik –batik bat

ordezkoena– gainerakoak lanez gainezka daudela kritikatu dute sektore publikoan. Frantziako Estatuan, esaterako, 30.400 langile publiko kaleratzeko asmoa iragarri du Nicolas Sarkozy, iazko eta aurtengo ikasurteetan EAEn guztira Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 1.400 irakasle galdu dituztela salatu dute sindikatuek eta Nafarroan, artaziak gogor sartzeaz gain, berriki bertan behera utzi dituzte osasun arloko hainbat plazatarako oposaketak.

“Egonkor kontzeptuak bizi guztirako esan nahi duela pentsatzea da arazoa. Egoera dena delakoa ere, postuak mantendu egiten dira testuingurua kontuan hartu gabe. Baina lan hori beharrezkoa ez denean, ezin zaio eutsi”

FRANCISCO LONGO, GESTIO PUBLIKOAN ADITUA

“Funtzionarioen postua betiko izatea egokia da, esperientziak espezializazioa eta profesionaltasuna gehitzen diolako hasierako kualifikazioari”

ANA HERRERO, FUNTZIONARIOA



Ana Herrero eta Pablo Cresporen hitzetan, funtzionaritza sendoa izatea zerbitzu hobeen seinale da eta ongizatearen estatuak jende espezializatua eskatzen du, hezkuntza eta osasun zerbitzu onak eskaintzeko.

Soldatetan ere izan da murrizketarik Hego Euskal Herrian: 1.000 euro baino gehiago kobratzen dutenei, soldataren %5etik %15era bitarteko jaitsiera. Funtzionario soldataren batez bestekoa egiteak ez du zentzu handirik, lanpostu adina lansari baitaude; maila altuenak hezkuntza eta osasun arlokoak dira –funtzionario kopuru handiena ere eremu horietan biltzen da–. Haserre daude Crespo eta Herrero funtzionarioak, maila baxukoei min egin dielako soldata jaitsierak, krisia bukatzean %5 hori ez dutela berreskuratuko uste dutelako, “gehienez barne-produktu gordina igoko digute”, eta lan-hitzarmenak eta legeak bidegabe hautsi direla iruditzen zaielako. “Politikariek erabili egiten gaituzte –salatu du Ana Herrero–, funtzionarioen soldatak murrizten dituzte herritarrak ikus dezan norberarengandik hasten direla, baina ez da egia, funtzionarioetatik hasten dira, baina ez nagusietatik, zuzendarietatik, izendapen askeko karguetatik. Nahiz eta gehiago kobratu, beraien buruari ez diote soldata jaisten politikariek, eta jendeak beharbada ez du argi zein den funtzionario eta zein ez. Bada, politikariak ez dira funtzionario”.

Fama txarreko beharginak

Sarri kafe makinaren aurrean irudikatzen dituzte langile publikoak egunkarietako komiki-bandetan. Estereotipoak dio alferrak direla, sekulako pagotxa dutela ordutegi eta lan-baldintzekin eta opor luzeez goza dezaketela. Datu objektiboetan, lan-orduak ezberdina dira lanpostuaren arabera, opor luzeak irakasleek baino ez dituzte –baita ikastetxe

pribatuetoako irakasleek ere– eta absentismo laborala oro har enpresa pribatuetoan baino altuagoa da. Absentismoaren arrazoitzat gehiegizko erosotasuna aipatu digu Longok, zuzendariaren kudeaketa txarra, motibazioa galtzea... Arazoa, dena den, enpresa pribatuetoan ikusten du Pablo Crespok, ez publikoan: lanpostua ziurtatua duzunean, ez duzu baja eskatzeko beldurrik, baina enpresa pribatuan –bereziki orain–, dagokionean ere langilea batzuetan ez da baja hartzera ausartzen, kanporatu ez dezaten.

Funtzionarioez dagoen irudia inoiz ez dela onegia izan azaldu du Crespok, baina soldatak erkatuta lehen lagun taldeko ergelak zirela eta krisi garaioan berriz, pribilegiatu bihurtu direla, lanpostu eta soldata finkoak dauzkatelako. “Bai, baina gizartean egoera ona zenean inor ez zen gogoratzen oposaketak prestatzen pasatako denboran, urrutira egindako leku-alaketetan... –dio Herrero– Funtzionarioak jende profesionala dira normalean, bada garaia irudia aldatzeko”.

Francisco Longok ere, funtzionariotzarekin kritiko izan arren, garbi utzi nahi du langileak ez direla bere kezka, denetik dagoela eta ez dela zentzuzkoa besterik gabe haietaz gaizki hitz egitea, gure teiltuari harriak botatzen ariko ginateke-eta. Eredua desegoki ikusten du, sistema hobetu daitekeela baitio, aintzat onenak hartuz eta ahalik eta hoberen funtzionatuz.

Azken finean, sektore publiko osasuntsua eta eraginkorra lortzea funtsezkoa da herritarren beharrak bermatu eta pribatizazioaren mamua aldentzeko. ■



Laida Azkona

«Dantzaria sortzailea ere bada askotan, ez makina bat soilik»

Arabatik Bartzelonarako bidean, geldialdi bat egin du Laidak Iruñerriko Uharteko Arte Garaikidearen Zentroan elkarriketa hau egiteko. Motxila pisua darama bizkarrean, barraskiloen antzera. Ordenagailua barruan. Gazte-gaztetandik nomada ibiltzen da munduan barna, pozik, bere bizitzaren koreografia sortzen.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

8 urterekin dantzan hasi zinenetik ez zara gelditu. Gogorra?

Alde batetik bai, gogorra izan da, baina errepikatzeko aukera izanda, gauza bera egingo nukeen. Institutuan ikasi bitartean lau ordu aritzen nintzen egunero dantzan eta baita larunbatetan ere. UBI bukatuta Londresera joan nintzen izugarri gustatzen zitzaidalako dantza egitea. Artean ez nekien hori nire lanbidea izango zen edo beste zerbait ikasiko ote nuen. Hasieran jendeak eta gurasoek pentsatzen zuten askoz ere hobe nuela karrera normal bat aukeratzea, baina hango irakasleek konfiantza handia eman zidaten han jarraitzeko. Gero bizitzak ere bide honetatik eramana nau: diru-laguntzak eta bekak izan ditut ikasten jarraitzeko, lanean hasteko eta nire proiektuak garatzeko.

Londresen hiru urte egon zinen eta handik Austriara. Zergatik?

Londresen hemendik eramandako ildoarekin jarraitu nuen: oso molde klasikoa, balet asko, eta dantza garaikidea ere bai, baina ez oso esperimentalak sorkuntzaren aldetik. Zenbait ariketa propio egiten genituen baina gidaritzarik gabe. Horrela hasi nintzen nire lehenbiziko sormen lanak egiten, gaur egun egiten ditudanen oso desberdinak. Argi nuen ez nuela dantzari klasikoa izan nahi, baizik eta arte garaikide eta sorkuntzaren aldetik jo, eta horregatik Salzburgora joan nintzen. Hangoa oso eskola ona da jende desberdinarekin lan egiteko. Irakasle asko igarotzen dira handik ikasturte batean eta ikasleen artean ere denetarik zegoen ni nengoenean: ni bezala, oso formakuntza

teknikoa genuenak, antzezleak, dantzaren munduan sartuta zeuden artista plastikoak... Haiengandik asko ikasi nuen. Bi urte ondoren Fullbright beka lortu nuen New Yorkera joateko, The Trisha Brown Company Studio eta Movement Research eskolatan ikasteko. Han urte osoan zehar nahikoa diru izan nuen nahi nuena egiteko. Hirian antolatzen zenez edozein ikastaro egin nezakeen. Han ere nire lehenbiziko lan profesionala izan nuen Sens Production konpainiarekin: uda osoan zehar emanaldi bat gauero. Emanaldi bera hainbeste errepikatzeko aukerarik ez dut berriz izan. Ondoren Salzburgora itzuli nintzen hango titulua eskuratzeko eta *Lego* lana sortzeko. Han

Nortasun agiria

Ekainaren 30ean, 1981ean, Betelun sortua, "zertarako ez dakit. Urte batzuk beharko ditut hori jakiteko!". Txikitatik eta 18 urte bete arte Iruñean bizi izan da. 8 urterekin hasi zen Nafarroako Dantza Eskola Ofizialean. UBI bukatu ondoren Londreseko Rambert School of Ballet and Contemporary Dance izeneko eskolara joan zen. Han hiru urte igarota Salzburgora, SEADera (Salzburg Experimental Academy of Dance), bi urte geroago New Yorkera, eta gero Bruselara. Egun Bartzelonan bizi da gehien gustatzen zaiona eginez: dantza garaikidea. Jean-Marc Serrano dantzariarekin batera, *Coches Rojos*, *Miedo y Cafeteras* lanarekin Arte Eszenikoen lehen saria eskuratu zuen Nafarroako Artista Gazteen topaketetan, 2008an. 2009an *HASIERA (el principio de la incertidumbre)* taularatu zuten Bernardo Atxagaren testuetan oinarrituta. Orain, *MU-TO* izeneko proiektuan dabil buru-belarri.





hasi nitzen hainbat konpainiarekin lanean. Urte batzuk geroago Bruselara joan nintzen bizitzera. Nire formakuntza nahiko hibridoa izan da, hemendik hara.

Formakuntza inoiz amaitzen al da?

Ikas prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik bizi naiz Bartzelonan, ikasten jarraitzeko aukera izateko. Ikastaro asko eta koreografo askoren lana ezagutu dezakezu. Alde batetik garrantzitsua da gorputza zaintzea eta bestetik sormena elikatzea. Euskal Herrian bada zenbait aukera, baina ez horrenbeste. Araban, adibidez, Lasierra herrixkan Azala espazioa dago. Idoia Zabaletak sortutako sorkuntza eszenikoaren ikerketarako, sustapenerako eta hedapenerako zentroa da. Urriaren hasieran egon naiz hor eta benetan oso ongi pentsatutako tokia iruditu zait. Toki eder eta lasaia da, oso ongi antolatua proiektuak aurrera eramateko. Idoia Zabaleta figura garrantzitsua da dantzaren munduan gaur egun, hemen Euskal Herrian eta Estatu mailan. Baneukan gogoia Azala ezagutzeko, bidali nion proiektua eta berak bere etxeko ateak ireki zizkigun. Idoia urte askotan aritu da Malpelo konpainian lanean. Haiek badute halako beste zentro bat Gironan. Haiekin sare moduko bat eratu dute artistoi sortzeko aukera ezin hobea emateko.

Hemen beti pentsatzen dugu inon baino okerrago gaudela. Egia da?

Euskal Herriko egoera hobetzen doala dirudi,

Uharteko Arte Garaikidearen Zentroaz (bertan egin genituen argazkiak): "Hemen egin nuen zentroak eskaini zuen lehenengo erresidentzia, duela urte eta erdi. Hemengo sala oso ona da. Zorua ez da batere gogorra, aretoa handia eta argitsua da. Alde horretatik ongi gaude: espazioak baditugu eta nahiko hutsik daudenez erraz samarra izaten da toki bat lortzea proiektu batean lan egiteko. Hori Bartzelonan ezin duzu lortu. Han, gutxi bada ere, beti ordaindu behar duzu".

oro har. Nafarroakoa ez horrenbeste. Hala ere niri ongi joan zait orain arte eta beti lagundu izan didate. Gertatzen dena da ez dagoela guztiz ongi planifikatuta. Legearen aldetik baldintzak ez daude pentsatuta sortzaileari bidea errazteko. Bilboko BAD jaialdia, adibidez, zorioneko salbuespena da. Haien galdera da: zer egin dezakegu zuk zure proiektua aurrera eramateko? Horrela, esate baterako, egiaztagiriak eta paper guztiak egiterakoan erraztasun guztiak ematen dizkizute. Hemen Nafarroan, aldiz, oso zaila da. Dantza mundua nahiko prekarioa da eta enpresa moduan planteatzen dutenez, lana zailago egiten digu. Batzuetan gertatu izan zait estreinaldia baino bi egun lehenago diru-laguntzak justifikatzen ibili behar izatea. Erokeria. Egia esan azken urte hauetan Eusko Jaurlaritzak gauza asko egin ditu dantza sektorea laguntzeko. Profesionalen elkarte bat dago eta administrazioak haien iritzia aintzakotzat hartzen du. Nafarroan elkarrikeria ez da existitzen. Saiatu dira parte-hartzea eta hizketa sustatzen Plataforma Arte Garaikidea ekimenarekin, baina ez da benetako elkarrikerietarik sortu. Zortea dugunok laguntzaren bat lortzen dugu, hala ere: Iruñeko Udalak Civivox aretoak eskaintzen ditu. Iturramakoan, hain zuzen, egingo dut *MU-TO*ren aurkezpena azaroaren 26an.

Europar artistek badute soldata bat, ezta?

Segun eta non. Brusela da ni bizi izan naizen azken tokia Bartzelonara joan baino lehen, eta han bai badutela artista estatutua. Artista bezala urte eta erdian 12.000 bat euro kotizatzen baduzu, bizi osorako langabezi ordaina lortzen duzu. Lana ez dagoen hilabeteetan mantentzeko adina diru ematen dizuna. Hemen hori esaten baduzu berehala jendeak pentsatzen du: a zer kopeta zabala! Kolperik jo gabe esne mamitan bizitzera! Agian hori izango zen hemen jendeak egingo lukeena. Bilatuko zuten nola edo hala estatutu hori horretatik bizitzeko. Baina sortzaileak benetan behar du hau. Ni pluriempregatua izan naiz mila gauzatan: klaseak ematen, Mercat de las Flors antzokian akomodadore gisa... eta aldi berean neure proiektua sortzen eta beste konpainia batekin emanaldiak egiten nenbilen. Gure egutegia puzzlea bezalakoa da. Gainera hilabete batzuetan lanez gainezka gabiltza eta besteetan, aldiz,

ez dugu ezer. Nik zortea izan dut. Nire ikasketan titulu akademikoak joan naiz eskuratzen, eta horrek, hasiera batean, diru-laguntzak eta bekak lortzeko balio izan zidan, ikasten jarraitu ahal izateko. Horregatik nago ni hemen. Ez dut inoiz taberna batean lan egin beharrik izan, zorionez. Ez dugu egonkortasunik eta horrek urduriago jartzen zaitu. Horretan ere ikasten joan naiz Idoia Zabaleta bezalako jendearekin: gogoekin eta positiboki pentsatuz, bihotzetik lan eginez gero, bideak irekitzen dira.

Arte garaikidea ez dela ulertzen esaten da.

Jendeari ez bazaio gustatzen ez da ezer gertatzen. Dena den arte garaikidea ez zaiola inori gustatzen mitoa da. Bada jende oso irekia eta hemen, adibidez, aretoak beteta ikusten dira askotan. Gertatzen dena da jende gaztea ez dela gehiegi mugitzen. Ez dute 10 euro sarre-
ra ordaintzeko, baina bai 50 ostiralean ateratzeko, oro har. Formakuntza falta handia ere badago. Belgikan, adibidez, eskola publikoetan dantza eta beste arte diziplinetako tailer-
rak antolatzen dituzte haurrekin. Beste arazo bat da gure inguru honetan antzokiek ez dutela berezko markarik. Bartzelonan, toki bakoitzak badu bere programazio lerroa eta badakizu zer aurki dezakezun hor. Hemen jendeak ez du nora jo, nahi duena nahi due-

Helburua

"Komunikatzea da garrantzitsuena. Aurrean duzun publiko horrek sentitzea edo pentsatzea lehendik sentitua edo pentsatua ez zuen zerbait. Batzuetan jendeak ez daki oso ongi nola erreakzionatu eta ea zer sentitu behar duten galdetzen dute. Publikoak egon behar du aktibo eta agian hori da ziurgabetasuna sortzen diona. Baina balio duena da norberak sentitu duena".

nean aurkitzeko. Beste adibide bat: Europako toki askotan badira 30 bat eserlekuko areto asko. Hemen ikuskizun batera 30 pertsona soilik etortzea desastre ekonomiko ikaragarria izango zen. Bilboko La Fundación jite horretakoa da, oso interesgarria. Sorkuntza bultzatu nahi baduzu halako espazio txikiak beharrezkoak dira.

Zeintzuk dira joera berrienak European?

Badira eskola desberdinak. Dantzari gehienak hemendik hara gabiltzanez, Europako joerak hementxe bertan aurki ditzakegu, zorionez. Bada jendea oso kontzeptuala, sorkuntza tesi bat frogatzearen inguruan lan egiten duena, oso estetikoak, beste batzuk emozionalagoak... Eta badira ere formatu handiko ikuskizunekin –dantza, antzerkia eta musika bat eginik– hiru urteko birak egiten dituztenak munduan zehar. Oso zabala da. Orain oso linea kontzeptual irmoaren gainean ari dira batzuk lanean: gorputzaren naturaltasuna eta mugimendu formal eza. Dantzatu dantza egin gabe.

Goi mailako kirolarien pare lantzen duzue gorputza?

Uste dut hau mitoa dela, dantzaren oso ideia tradizionala. Egia da sasoian egon behar duzula eta hala ez bada ez zarela ongi sentitzen. Baina guk ez dugu soilik nahi jauzi han-



hizkuntza
ELHUYAR
zerbitzuak

Android
eta
iPhone-
rako



3G 4:08 PM

Android Market

Apps by Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak

Eihuyar hiztegia eu-es
ELHUYAR HIZKUNTZA ZERBITZUAK
Eihuyar Hiztegia tresna erabilgarria izan nahi du erabiltzaileak, oraindik ez duenak erabiltzeko harria a...
€ 9.00 BUY

Dictionnaire Elhuyar eu-fr
ELHUYAR HIZKUNTZA ZERBITZUAK
Euhuyar hiztegia tresna erabilgarria izan nahi du erabiltzaileak, oraindik ez duenak erabiltzeko harria a...
€ 9.00 BUY

Eihuyar sinonimoen kutsa
ELHUYAR HIZKUNTZA ZERBITZUAK
Sinonimo eta antonimen hiztegia duen liburu. Elhuyar Sinonimen kutsa. Urtarril...
€ 9.00 BUY

Eihuyar ikaslearen hiztegia
ELHUYAR HIZKUNTZA ZERBITZUAK
Hiztegia ikaslearen hiztegia duen liburu. Elhuyar Ikaslearen Hiztegia. Urtarril...
€ 9.00 BUY

Eihuyar ikaslearen hiztegia
ELHUYAR HIZKUNTZA ZERBITZUAK
Hiztegia ikaslearen hiztegia duen liburu. Elhuyar Ikaslearen Hiztegia. Urtarril...
€ 9.00 BUY

Safari Mail Phone Facebook

Elhuyar hiztegiak zure mugikorrean

Deskargatu **DOAN** demoak
www.elhuyar.org/hiztegiak-mugikorrean
 mugikorrak@elhuyar.com



MU-TO, BAD jaialdian

MU-TO da Laida Azkonak Bilbon aurkeztuko duen dantza eta bideo muntaiaren izena. Azaroaren 5ean, BAD, Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikidearen jaialdiaren XIII. edizioan izanen da. "Jaialdi honetarako aukeratzeko dituzten proiektuen egileei, diru-laguntza emateaz gain, espazio bat eta laguntza teknikoa ere eskaintzen dizkiete. Horiek sormen lan bat egiteko baldintza onenak dira. Abuztu osoan Bilbon egon nintzen lanean eta orain azaroaren hasieran itzuli naiz erresistentzia teknikoa egitera, hau da, 5eko aurkezpenarako detaile guztiak prestatzera".

"*MU-TO* proiektua oso interesgarria da. Nire sorkuntzan norabide aldaketa bat egin nahi nuen. Azken urte hauetan nahiko produkzio handiak egin ditut Hierbaroja kolektiboarekin eta orain gehiago sorkuntzari begira jarri nahi dut. Duela bi urte hasi zen eta prozesu honetan, orain dela urtebete, Verónica Eguaras sartu zen, bideo muntaiaren aritzen den artista".

"Nik beti ikus-entzunezkoekin lan egin izan dut. Inspiratzen nauen zerbaitetik abiatzen naiz eta dauzkan posibilitate guztien bila aritzen naiz. Orain egiten ari naizen pieza honek badakar mahaiko lan asko. Nik uste dut hau dela nire pieza teorikoena. Memoriari buruzko gogoeta bat. Teorikoa da, baina ikusi dutenek ni naizena argi erakusten dudala esaten didate".

"*MU-TO*, Mutar ideiatik dator. Oroitzapena, inpresioa eta ahanztura. Iragana orainalditik berregiten dugu, hor

gelditu zaizkigun inpresioen bidez. Nik eszenatokian nire memoria fikzionatzen dut. Iragana bere osotasunean ezin denez gogoratu, historiaren zati batzuk nire nahiari fikzionatzen uzten diot. Memoria kolektibotik egiten dugu beti gure berreraikuntza. Horiek dira gure kanonak. Kontatuko ditut nire gauzak, baina baita historiako pertsonaia batzuenak ere nireak balira bezala".

"Zenbait tokitan erakutsi izan da: Iruñean, Gasteizen, Bartzelonan, Madrilan, Brasilen... Orain estreinatu behar dudana, hala ere, guztiz berria da, gogoeta teoriko horretatik sortutako lan berria. Arraro egiten da hainbeste tokitan erakutsi ondoren estreinalditik hain hurbil egotea, baina hori da ideia: beti eraikitzen ari den zerbait izatea. Nire lanak ez ditut normalean ixten, baina orain azken fasean sartzen ari gara".

<http://mu-to.blogspot.com>



diagoak egin edo azkarrago dantzatu. Hori izango litzateke dantzari tradizionalaren jokatara. Koreografo batek zure gorputza erabiltzen duenean bere ideia formulatzeko makina zara. Duela 30 bat urte, aldiz, dantza garaikidea beste modu batez hasi zen gorputza begiratzeko. Dantzaria, beste guztiaren gainetik, pertsona da. Ezagupen teknikoak eta trebeziak ditu, baina aldi berean, bere banakotasuna oso garrantzitsua da. Eta harago joanda, dantzaria sortzailea ere bada askotan, ez makina bat soilik. Askoz leku naturalagoetan jartzen dugu gorputza guk. Dantzari makinaren mitoa oraindik egia da, Dantza Konpainia Nazionalan, adibidez. Baina talde askotan beti egingo dizute sorkuntza proba bat. Ideia bat eman eta galdetu: zer egingo zenuke honekin? Gaur egun koreografoak ez dizu esaten urrats bat ezkerrean, aurrera edo atzera eta halakorik. Orain ideia bat ematen dizute eta zu gorputzen saiatzeko zara.

Adinak garrantzirik du?

Makina izateko bai. Eta gainera oso sasoiaren egon ondoren, 40 urterekin lur jota daude askotan. Dantza molde hauetan teknika leuna goak erabiltzen dira. Guk ordu asko ematen dugu gorputza zaintzen. Ikertzen dugu nola

Nomada

"Jende pila, kultura asko ezagutu izanak bilakatu nau orain naizena. Beti nomada ibiltzeak oso gauza interesgarriak ditu, eta ez horren onak. Baina hori da nire bizimodua. Hau da ni naizena".

mugitu modu eraginkor baina osasungarrian. Hala ere gerta daiteke, noski, lesioak izatea. Gure formatuan dantza, antzerkia, performancea, arte plastikoak... sartzen dira. Oso dantza formatu hibridoak ari gara eta hemen gorputza bere horretan da interesgarria, ez soilik gorputz landua. Adinarekin ikusiko dugu. Kezka-garriagoa da prekarietatean bizitze hori: orain dirua dut, gero ez. Ez duzu ziurtasunik.

Hamaika tokitan bizi izan zara. Zein da zure etxea?

Orain bat hartu dut Bartzelonan eta oraingoz hori izanen da nire etxea. Iruñea nire jaioterria da. Hemendik nator eta nire erroak eta nire familia hemen daude, baina oraingoz ez dut planteatzen hemen gelditzea. Kulturalki bizirik dagoen leku batean egotea oso garrantzitsua da sormena elikatu ahal izateko.

Zure mailetan zer ez da inoiz falta?

Ordenagailua eta disko gogorra. Hor duzu dena produkzio eta sorkuntza aldetik. Hor informazioa dokumentatzeko, kamerak, bideoak... Entseguetarako, inprobisazioak grabatzeko, webcama erabiltzen dut, adibidez. ■



• 1936ko Gerraren lekukotzak •

Lubakietako oroitzapenetan barna

Bonba hotsak eta kartzelako miseriak oraindik oso presente dituzte azken gudari eta milizianoek. Gerra zibilean, gerraostean, espetxean, erbestean, langile batailoietan, armada frankistan eta soldaduskan izandako bizipenak islatzen ditu *Maizales bajo la lluvia* (Alberdania, 2011) liburuak. Lehen lerrotik.

AITOR AZURKI



CNTko “libertariak” eta adiskideak Otxandioko plaza nagusian, 1936ko uztailean, frankisten bonbardaketa baino egun batzuk lehenago.

MARCELO USABIAGA KOMUNISTAK sekula ez ditu ahaztuko kartzela frankistetan egindako 21 urteak. Ezta bere anaiaren fusilamendua ere. Miguel Francisco Lafuente *Txisko* santurtziarrak ere ezin du ahantzi frankistek bere bandoko kideak fusilatzera behartu zutela. Gernikako bonbardaketa ere ez. 90 urtetik gorako gizaseme hauek ez dute duintasuna

zokoratu, eta inoiz baino gehiago, belaunaldi berriei gertatu zitzaiena belaunaldi berriei helarazteko gogo biziz dira. Marcelo eta *Txis-ko*-ren lekukotzak eta beste hainbat gizon-emakumerenak jasotzen ditu *Maizales bajo la lluvia* liburuak. “Historia liburuetan bide-bazterrak ere existitzen dira. Hau da, zuriz dau-den hutsuneak; eta orain edukiz betez doaz,



zapaltzen dugun lurraren azpian hobiak aurkitzen ditugun bezala”, izkiriatu du Paco Etxeberria irakasle eta Arantzadiko presidentek hitzaurrean.

Anarkistak, komunistak, sozialistak eta nazionalistak. Gazte zirela, demokraziaren alde lehen unetik borroka egin zuten gizon-emakumeak dira protagonistak. Atzean utzitako burkideen, senitartekoen eta garai baten bozeramaile dira. Usabiagak, esaterako, Irungo batailan esku hartu zuen: “Udaletxeo Zuzendaritza Militarrena deitu gintuzten, bilera batera. Arratsaldeko zazpiak edo zortziak ziren eta alderdi bakoitzeko arduradunari fronte-gune bat egokitu zitzaion: ‘Zuri, Usabiaga, Puntza. Alderdi sozialistakoari, Saroia; alderdi komunistakoari, Pagogaña...’. ‘Beno, eta zertan datza?’. ‘Irungo egoera etsitzeko modukoa da. Zuek ez baduzue defendatzen, ez du inork egingo. Hortaz, zoazte, eta ez hona itzuli zuen gunea seguru dagoen arte. Bestela, bertan hil, hura defendatzen’”.

Hasiera baino ez zen. Marcelori anaia Aiako Harrian fusilatu zioten. Gerrak aurrera jo zuen, eta, baita berak ere: Bizkaia, Katalunia, Madril, Kantabria, Asturias... Iparraldera ihes egitea lortu zuen eta 1944an gerrillari gisa Hegoaldera igarota atzeman zuten. Ondarretako espetxean sartu zuten preso, “gela batean 24 orduak, isolaturik, epaiketa- ren esperoan, fusilatuko nindutela ziur nengoen! Exekuzio-pelotoiaren aurrean nola erreakzionatuko nuen pentsatzen nuen: horman jarrita entseatzen nuen”. Azkenean, hogeituroko espetxe-zigorra ezarri zioten. Eta hori baino gehiago bete zuen.

“Esnatu nintzenez, ez nekien zenbat denbora neraman konorte gabe”

Donostiako uztaileko defentsan ibilitakoa eta bizirik dirauen azken borrokalarietakoa da



Beheko argazkian Huescako San Joan presondegi militarreko preso euskaldunak azaltzen dira 1938an. Tartean daude *Maizales bajo la lluvia* liburuko bi protagonista: José Moreno (erdi-erdian, txapelarekin) eta Paco Barreña (José Morenoren goialdean, eskuinetara, txapelarik gabe). 70 urte igaro dituzte elkarren berri izan gabe eta liburu honen karietara elkartu dira berriro, Portugaleten 2009ko irailean, ETBk egindako erreportaje batean. Ondoko irudian, Moreno eta Barreña ageri dira elkartu ziren egunean, gerra garaiko argazkia eskuetan dutela.

Mateo Balbuena. Talde handi bateko kide zela, donostiar errepublikarrei laguntzera joan zen Bilbotik: “Kalera irteten ginen batean, lurtean etzan nintzen hobeto tiro egiteko; tontor batzuen atzean babesten saiatu ginen. Metrailadore baten menpe geunden, baina batez ere fusilak ziren tiroka ari zitzaizkigunak. Borroka itsu-itsuan

zen: hogeituroko egonik ere, itsuan tiro egiten genuen, oso gaizki ikusten baitzen”.

Tentsio askoko uneak egun horietan bizitakoak, Donostian bezala Otxandion ere, baina kasu honetan uztailaren 22ko bonbardaketa frankistaren ondorioz. Felix Padin bilbotar anarkistak hala kontatzen du jazotakoa: “‘Lurrera bota zaitezte! Lurrera! Bonbak dira! Bonbak!’”, oihuka irteten ziren udaletxetik. Eta gu, noski, hegazkina botatzen ari zenari so geunden, distira egiten baitzuten erortzerakoan”. Distira horiek 57 hildako utzi zituzten, besteak beste. Julia Hermosilla seataotar anarkistari, esaterako, bi tinpanoak txikitu zizkieten: “Esnatu nintzenez, begiak ireki eta ez nekien zenbat denbora neraman konorte gabe, leku guztietatik odolez nengoen-eta. Lehenengo ikusi nuena Telesforo Monzon izan zen, esanez: ‘Ospitalera jaitsi behar ditugu! Basurtora!’”.

Hermosilla ia gor geratu zen. Gerrak ez zituen soilik barne zauriak eragiten, zauri fisiko bortitzak ere utzi zituen. Hortxe dugu Luis Mari Azpiri sozialista eibartarraren kasua. Bizkaiko frontean zegoela, lubaki batean, “kanoikada batek gertu jo zuen eta arroak gure gainera erori ziren. Niri tibia eta peronea zatitu zizkidaten. Beste bi hilik geratu ziren. Andazainak ezin zirenez hurbildu, anaiak ni heldu eta arrastaka ateratzen ninduen”. Azpiri salbatu zen, baina zoritxarrez, handik astebetera ospitalean zela, jakin zuen anaia bala batek jota hil ziotela.

Euskaditik at borrokar

Makina bat izan ziren euren sorterrira atzean utzi behar izan zutenak matxinatuen aurka

aritzeko. “Asturiasera iritsi ginen autobusetan eta gazte batzuk oihuka: ‘Hemen daude! Hemen daude errusiarrak!’. Euskaraz hitz egiten entzun gintuztelako! Eta uniformaturik geundenez... Eurak denak arropa zaharrekin, penagarri”, dio Manuel Goenaga usurbildarrak.

Sarri, gertakari bera zenbait toki eta ikuspuntutik kontatu dute lekukoek, gerrako historia pertsonalak elkar gurutzatzen dira, eta protagonista historiko asko kontaktuzun batek bestera doaz saltoka. Gernika bonbardatu zutenean, kasu, *Txisko* Lafuente bertan zen: “Hura kaosa zen; ezin da deskribatu! Jendea korrika, izuturik; haurrak lurlean, emakumeak negarrez; jendea ahal zen lekuan sartzen, zaurituak lurlean hiltzen, bonbak etengabe erortzen, etxeak eraisten eta herria txikitzen. Dena suntsiturik, dena ‘garbiturik’. Hura infernua zen...”. Luis Mari Azpiri Gernikara zihoan egun horretan: “Urrutira, distira ikusi genuen. ‘Zer arraroa den hori’. Eta hurbiltzerakoan dena sutan zegoen”. Jose Moreno bizkaitar gudari nazionalista ere han inguruan zebilen, baina kilometro dezentera: “Aizue, zer ari da erretzen?” Gernika zen. Kea ikusten zen irteten, eta erretzen ari ziren etxeen distira ere bai”.

Bizitza osoa Francoren aurka

Gipuzkoa, Bizkaia, Kantabria, Asturias... Emeki-emeki errepublikar lurak menpean hartu zituzten frankistek. Hori zela eta, atzera egin behar izan zuten etengabe gudari eta milizianoek. Borrokan eta ihesean, azkenik askok Iparraldera jo zuten. Julia Hermosilla, adibidez, bere senar Angel Aransaezekin batera, euskal erbesteko ekintzaile sutsu bilakatu zen Baionan. Aguirre, Leizaola, Monzon, Mugica Herzog, Nicolas Redondo (aita), Ramón Rubial... Hamaika protagonista historiko eza-gutu zituzten, eta mugalarri lanetan aritu ziren. Ekintzen artean, besteak beste, Francoren aurka gaizki irtendako atentatu bat prestatu zuten 1962an, Julen Madariagak lehergailuak Hegoaldera igarotzen lagundu zienean.

Beste batzuen zoria ilunagoa izan zen: Mateo Balbuenak 25 bat egun eman zituen ihesi mendi elurtuetatik Frantziara heldu nahian. “Oinez gau osoan; oinez, oinez. Laban baten ahotik ibiltzen ari nintzen irudipena nuen; aldamenetan amildegia sentitzen bainuen. Haizeak informazio hori ematen zidan.



Goian: Julia Hermosilla anarkista Angeluko bere etxean, gerrako paper eta argazki zaharrei begira. Behean: *Txisko* Lafuente 16 urterekin, estudioko argazki batean, gerrara joateko materiala hartu berrian.

Jaisten hasi eta orpoekin botak erabat hautsi zitzaizkidan. Eskularruak larrututa... Halako batean amildegira erori nintzen”. Azkenean, baina, Frantziatik gertu, Broton, amaitu zen bere odisea: “Esnatzerakoan bi fusilen kontaktua sumatu nuen buruan. Begiratu eta Guardia Zibila zen”.

Beste batzuk, José Moreno adibidez, Santoñan atxilotu zituzten: “Portura heldu eta italiarrak zeuden. Armak utzi behar izan genituen. Eta esaten ziguten: ‘Lasai! Laster etxera joango zarete, euskaldunak ongi portatu baitzarete”.

Baina milaka gudarik ez zuten etxea urte askoan zapaldu ere egin. Esklabo gisa errepideak eta zubiak berreraikitzeke langile batailoietan sartu zituzten. Batzuk baita armada frankistan ere. *Txisko* Lafuente, esaterako, sei edo zazpi aldiz bere aldeko kideak fusilatzerara behartu zuten Paternan: “Nik izendatu behar izaten nituen soldaduak: zu, zu eta zu. Izendatu eta kito. Baina batzuetan ez zen inor egoten konpainian: ez, fusilatzeke hanka egiten zuten. Normala! Eta zazpi kasutan ez nuen inor izan izendatzeko; nik joan behar izan nuen... behartuta!”. Hori bezalako hamaika zorigaizto ikusitakoa da *Txisko*: “Aita-semeak fusilatu behar zituzten. Aitak, semea: ‘Lasai seme, burua altxa! Horrela! Zutik!’. ‘Apuntatu!’, esan zutenean, bata bestearengana korrika joan ziren, besarkatu eta bertan fusilatu zituzten...”.

Hori gutxi balitz, urtetako irain eta tratu txarren ondoren, soldaduska egitera behartu zituzten. “Etxetik 17 urterekin irten nintzen eta 24 nituela itzuli. Gaztaro osoa. Hori ez da sekula ahazten, bizi izan duzulako, e? Barkatu, barkatzen duzu, baina ahaztu, ez”. Izan ere, José Morenok dioen lez, bizipenak memorian dituzte iltzaturik, ezin ahantzi dituzte, ezin atzean utzi. Ezin zokoratu euren borroka, gaur egun tinko jarraitzen dute. “Borrokatzera! Bizitzan motibatzen gaituen zerbait izan behar dugu. Batez ere garrantzitsua da helburu humano bat izatea”, dio Mateo Balbuenak. José Morenok etengabe gutunak idazten ditu Bizkaiko egunkarietan. Marcelo Usabiaga eta Felix Padin hitzaldiz hitzaldi aritzen dira lekukotzak kontatuz. Lehen lerroan diraute, euren ideien lubakiei atxikirik; oroitza penak arma gisa dituztela, borrokalarri zahar hauek tiroka jarraitzen dute geratzen zaien fronte bakaurretik, memoriaren frontetik. ■



TTAKUN (H)ERRENKA

Zaharkitze programatua

La 2ek, Arte kanal frantziarrak, Televisión Española eta Televisió de Catalunya ekoiztu duten *Comprar, tirar, comprar* dokumentala ikusi genuenean, orduan hasi ginen *Zaharkitzapen programatua* kontzeptua ahotik ateratzen. Kontsumorako produktu berriak sortzerako orduan (bateriak, bonbillak, inprimagailuak, eta abar), ekoizleek azkar zaharkitzen eta apurtzen diren produktak diseinatzeko dituztela jakin ahal izan genuen, hau da, haien bizitza erabilgarriari “death date” edo “hiltzeko eguna” nahita ezartzen zaio. Horrela sentitu naiz ni ETAk “jarduera armatua behin betiko amaitzea erabaki” duela jakinarazteko jendarteratu duen adierazpenaren ondotik. Alegia, zaharkitzapen programatuak azkar eta nahita apurtutako produktu bat bezala. “Gauzak ondo esplikatzeko jakingo banu ez nuke kantatuko”, Mikel Laboa handiaren antzera esango nuke orain oso gustura. Baina “momentu historikoa” bizitzea tokatu zaigu (ez ditut momentu historikoak maite, garbi adierazteko, putakeria galanta iruditzen zaizkit momentu historikoak), eta ARGIA bezalako garrantzi handiko astekari batean kolaboratzaile lanetan aritzeko zorte aluarekin gainera. Ondorioa da zerbait esan behar dudala, hori da ttakunkideek ez ezik, irakurleek ere nigandik espero dutena, eta ezin dut burua ezkutatu. Ea ongi esplikatzeko naizen. Poz oso handiaz poztu nintzen berria entzun nuenean, jakina! Baina behin odola garbituta, zauriaren ubelak besterik ez dira geratzen. ETArek iragarpenaren aurrean, Euskadi Irratiari, ETBri urgentziaz egindako adierazpenak jarraitu nituen, erreakzio guztiak ia komunikabide guztietan, arretaz eman nuen urriaren 20ko arratsaldegaia. Ohartu nintzen elkarriketatutako guztiek sentitu


CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

zutela denengan berdina izan zen zerbait esateko premia: euren adina. Nik 39 urte ditut. Orain 52 urte dauzkat. Nik 41 urte ditut, 14 urteko seme bat eta 4ko alaba bat. Nik 57 urte ditut. 67 urte ditut. 77 urte ditut. Denbora osoa. Bizitza osoa gatazka politikoaren etxean eman dugu. Eta arazoa da

gu ere behar baino lehenago zahartu egin garela. ETArek adierazpena ospatu eta berehala zahartu naiz ni. Puntu jakin batera iristean puskatu, matxuratu edo funtzionatzeari utzi dion etxetresna bezala. “Ez nuke ETArek amaiera ikusi gabe hil nahi!” ezinezko ametsa bezala amesten zuten milaka pertsona hil dira amaiera ikusi ezinda. Ni ere ikusiko ez nuela sinetsita nengo. Baina behin betiko bakea ikusiko dut, bake betikoa baino lehen. Hala ere, iragan-oraina-geroaren ispi-luaren aurrean jarrita, “fenomeno sozio-politiko-kulturalak” nigan utzitako ondorioak ezabagaitzak direla ere ikusi dut: herri-inkontinentsia, herri-desnutrizioa, herri-ikusmen eta herri-entzumeneko arazoak, herri-depresio bilakatzen den herri-isolamendua, eta abar. Hau da, niri ere intentsitate handiko zaharkitze-prozesua aplikatu zaidala ikusi dut. Eta ezin harrotu zahartzaro horretaraino iritsi izanaz. Zer edo zer berri behar denean gailu osoa zaborretara bota behar ez izateko, edo behintzat piezak birziklatzeko forma iraunkorrak erraztu beharko diren

modu berean, bizitza luzea gatazkak eragindako era guztietako kalteak nozizuz egin dugunok ere sendabidea bilatu beharko dugu, eta aro berrira egokitze ospitalera joan, medikuak gizarteratzeko moduan gaudela ebatzi arte. Bestela, gurea bezalako herrialdeak politikaren hondakinentzako zaborte-gi kontrolatu bihurtuko dira. ■



Bizitza osoa gatazka politikoaren etxean eman dugu. Eta arazoa da gu ere behar baino lehenago zahartu egin garela.

ETArek adierazpena ospatu eta berehala zahartu naiz ni

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Eider Alkorta

POLITOLOGOA

20 N-a

Izaroaren 20a gero eta hurbilago dugun honetan, Espainiako Gorteetarako hauteskunde eta balizko emaitzetatik harago doazen aldatetak bizitzen ari gara. Adierazpen, akordio eta eszenifikazioen urtea izan dugu eta zenbaiten oinetakoen zoletan nabaritzen hasia den manifestazio andana. Aldaketen eta aurrepausoena ere, bazetozenak, baina azken hilabeteotan bizkortu direnak eta zenbaitek hauteskunde urgentziaren baitan kokatu dituztenak.

Urriaren 20an jaso dugu ETaren “azken” agiria eta ez dakit komunikatuaren inguruan zenbaitek eginiko espekulazio ariketak bukatutzat eman ditzakegun. Kontuak kontu, egunotan diskrezio eskaseko joko hauek zeinen mesedetan aritu diren pentsatzen egon naiz. Data ere ipini zioten, 20Naren aurretik izan behar zela, bai ala bai, PSOE Madrilen gobernuan den bitartean. Eta horrela izan den arren, sorpresarik ezean, PP izango da gatazka armatuaren ondorioak kudeatu beharko dituen. Eta orduan gogoratzen didate Zapateroren azken karta izan daitekeela, eta berriro lorontzitik kanpo nagoela ohartzen naiz, eta nire duda-mudak espainiar iritziz publikoak PSOERI saritu baino, zigortu egin diezaiokenaren inguruan. Inkestei begiratzea besterik ez dugu.

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak izate-



INGO AZKONA



Madrilgo Kongresuan
talde parlamentario
propioa izateari
bestelako garrantzia
ematen hasi zaio eta
abstentzioaren aldeko
argudioak ahaztu dira



ko, oraingoan euskal alderdiak, batzuk aspaldian ez bezala, dena ematen ari dira. Ezker abertzaleak azkenaldian zabalduriko ildoaren baitan hauteskunde estrategiak ere birmoldatu ditu. Madrilgo bidea alboraturik izan du urtetan, eta EAJk bertako ordezkartiaz eta gobernu ezberdinen ahultasunez baliaturik Euskal Autonomia Erkidegoaren zatitorturiko transferentziak gutxietsi ditu. Ibarretxeren proposamenari Gasteizko legebiltzarrean emandako hiru boto estrategikoak ere hor daude, agerian utziz Madrilgo horma gaindiezina zela. Baina oraingo testuinguru politikoan, Madrilgo Kongresuan talde parlamentario propioa izateari bestelako garrantzia ematen hasi zaio eta abstentzioaren aldeko argudioak ahaztu dira. Garai berrietarako bitarteko berriak, bakar batzuk aldatetaren egiazkotasuna asumitu ezinean badabilta ere. Errealitate berriek taula politikoan birkokatzeko prozesua dakarte.

20Na pasako da, eta udal eta foru hauteskundeetako emaitzak zenbatetan errepikatuko diren ikusiko dugu, eta urrun bada ere, 2013ra begira jarriko denik izango da. Bitartean, hemen, aro berriaren oinarriak ipintzen hasiak direla ikusten dugu. Orain etxea eraikitzea dagokio euskal gizarteari. Hori bai desafioa. ■



HIRUKO TXIKIAN

Edu Zelaieta



Primizia baten berri eman behar dizuet, lagunok: badakit nork galdu behar dituen azaroaren 20ko hauteskundeak. Ez nuke harroxko agertu nahi, baina badakit, halaber, nork ez dituen galdu behar. Jakin nahi duzue? Bada, etorri. Etorri hurrengo paragrafora.

Bigarren kontutik hasiko naiz, inporta ez bazazue; izan ere, Espainiako tradizioaren zati handi bat azaltzen duten bi ardatzek ez dute inolako aldaketarik izango, hauteskundeak PPK edo PSOEek irabazi: gastu militarrek eta monarkiak. Bitxia da ikustea, kri-

Hauteskundeak galdu

sialdia dela eta, zenbat sektore nola jartzen ari diren auzitan han eta hemen, gastu publiko alferrekoak aurrezte aldera; eta, monarkiaz eta gastu militarraz, berriz, tutik ere ez, aizu! Egundoko isiltasun mediatikoa, (etengabeko) zarataren jendartean! Adierazgarria, ezta?

Hauteskundeak, beraz, monarkia kendu eta gastu militarra murriztu nahi dituzten herritarrek galdu behar dituzte, ezinbestean. Bozkatu ala ez, Espainiako demokraziak ederki oroitaraziko du bere jatorria, bozak azaroaren 20an eginda. ■



Edorta Arana

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

Krudelkeria

Gaddafi burutik zerion odola garbitzen ikusi dugu telebistan. Gaur gaurkoz agintean dauden estatu buru askori bostekoa emateko eta milaka milioi euroko hitzarmenak sinatzeko erabili zuen esku bera erabiliz. Bere azkenetan zegoen. Noraezean, jipoitzen zuten bitartean. Diotenez, horrela hil zuten, kolpeka. Inguratutako piztia balitz bezala egurtuta eman zituen azken uneak. Gero buruan tiro egin zioten.

Aipatzen ditudan irudi horietan ez zuen erakusten beste hainbatetan hedabideetan ikusi izan diogun keinukera hantustea. Gainera, ez zituen ondoan atzo arte lagun zituen han eta hemengo boteretsuak.

Berrogeita piku urtez estatu buru izandakoaren gorpuari mugikorrek argazkiak ateratzen zizkioten handik ari zirenak. Ehiza domina bilakatuta. Aurpegi odoleztatua. Ahokera desitxuratua. Errepide-kontratan inoiz aurkitzen ditugun animalien antza hartuta.

Irudi horiek, gerora, munduko berri-agentzia guztiek zabaldu dituzte. Ez nago Gaddafiren kontra borrokatu zuten azalean. Irakurritakoaren arabera dakit heldu zaidan apurra baina botagura eta amorrua ematen didate pertsona bat horrela hil eta gero ere bere duintasunaz hain nazkagarri jokatzea. Eta irudi horien erabileraren kontra nago.



DANI BLANCO



Agintean zegoenean
gurtzen zuten gehienek
bizkarra emanda hil da.
Hil arteko torturaldian,
Gaddafiren irudiek
gogora ekarri didate
Saddam Hussein atxilotu
eta urkatu zutenekoak



Agintean zegoenean gurtzen zuten gehienek bizkarra emanda hil da. Hil arteko torturaldian, Gaddafiren irudiek gogora ekarri didate Saddam Hussein atxilotu eta urkatu zutenekoak. Edota udaberritik hona Mediterraneo aldean agintetik bota dituztenenak.

Hain izan da erabatekoa agintari horiei buruz egunkari eta irrati-telebistetan eman izan zaigun irudi aldaketa, zaila dela neurria zein den jakitea. Aliatu militar maitagarrienak, egun batetik bestera, etsai handienak bilakatuta ageri zaizkigu. Bezperan itun estrategikoen sinatzaileak biharamunean deabruak bailiran irudikatzen dituzte.

Eta zuritik beltzerako norabide aldaketa horretan agintedunek eta, beraz, hedabideek beharrezkoa izaten dute aretoa mediatikoki berritxuratzea. Bere humanitate zantzuak desagerraraztea. Jasotzen duen umiliazioaren neurritik jarri. Horretarako pribatutasuna bortxatzen dute. Eredu intimoenak plaza erdian erakutsi. Eta, norbanakotasunaren kokalekua den gorputza bere gordintasunean despertsionalizatu. Begirunerik gabe publiko egin.

Bizirik zegoenean hasitako metamorfosi diskurtsibolari amaiera emanez, Gaddafi zenaren irudi latzak eskaintzen dizkigute. Zer egingateko gauza diren jakin dezagun. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



izan da berrogeita hamar urte hauetan etengabe erabili dugun hitza. Ez da egoera arrotza izan gure gizartean, nahiz eta inguru hurbilenetik hara, desasosegua sortu erabilpen hutsak. Ezin ukatuz, aho txikiz, beste mundu bateko injustizia bailitza komentatzen zen kolokialki. Deserosotasunak laburtzen zuen normalean elkarriketa edozeri buruzko kalakari bide eginez. Baina herri honetan torturatuak milaka izan dira urte hauetan. Familia gehiegi dago torturatutakoren bat etxean duena, Alzheimer sakonenak ere ahanzaraziko ez duena. Atzo bertan, espainol irrati kate batean ETak hildako baten anaiak –ETak publikoki

Tortura

bere gain hartua— zioen salatu kasu batzuetan egia izan litekeela torturarena, baina horretarako zeudela tribunalak eta ez zirela hainbeste tekoak frogatu ahal izandakoak. Beraz kontu handiz mintzatu behar zela gai horretaz, baldin eta nahi ez bagenuen injustuak izan. Eta eroso gizona. Ez dut tortura kasu bakar bat ezagutzen torturazaleek publikoki onartua. ETak bere ekintzetan ez bezala, armadunek ez dute inoiz onartu torturatu dutenik. Komisariatik torturatu zerraldo atera dutenean ere ez, beren bertsio ofizialean torturatuak bere buruaz beste egin duela esateraino iritsi direlarik. Inpunitatez. ■



BERTSO BERRIAK

Joanes Etxebarria

Ogiari errezitatzeko jarriak



Ondarru, Elgoibar, Gernika eta Berrizen artean edo
neskenegünez [larunbatean] üken düt saio bat bero.
Iheslariak eta presoak, haientako gure bertsoak
Elkartasun egünean
nihor ez da hürrünean
Juan Junda, Estepan, Manex, Euxebio eta Camaleoia...
eskizofreno edo artista, Lipus antzerki lehoia
“joe, brutala haiz tio!”
Erramunek erran dio
eta bertsoak... holakoxeak, “hik ere eindok hirea”
eta ni kontent zabaltü beitüt, lotsa gabeko bidea.

Gero jeiki Etxebarrian, familiaren herrian.
Pintxo gosea ase nahian, sartü Markina erdian
ostatü batetik elkitzen, kanpoko argiaz sufritzen
hala deit batek galtatü “atzo hik düka kantatü?”
nik baietz erran ene saioko hamar potoer pentsatüz
besoan züan boltsa zabaltüz
gaupasan zela hunhartüz
eman deit goizeko ogia
ez zen handia, ez zen lodia
joan da besterik erran gabe, eta ützi näü pentsakor
anaiari hola galtatü deiot, “ez zena sobera mozkor?”
ez dakit erraitea den hits, bena gizon eskerrik hanitx!

Markina-Xemein horretaz gain da, ezinago eüskaldüna
han gaztelera entzün gabe ere, iragaiten da egüna
bizkaiera ikasi in biot, zuegaz berba eiteko
halan be planak einda dekodaz, laster bueltan joateko,
ogi bila joateko.



DOINURIK EZ DU.



Bidali zure sortak **bertsoak@argia.com** helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaisa

Zoé Bray

«Bizitza margotzeko
lohitu egin behar duzu»

Europar leku askotan bizitzen eta margotzen ibili ondoren, Zoé Bray artista jatorriz baxenafarra Nevadan dago, neguaren zain. Antropologiak badu Atlantikoz bestaldera eramanez, margolaritzak barneak alhatzen dizkio. Elurak Renoko bazterrak zuritu aitzin, Zoé Brayk arteari buruzko bere gogoetak eskaini dizkigu. Naturari begira irakurtzeko moduko burutazioak dira, izan ere.

ITZIAR MADINA

Argazkiak: Gorka Rubio / Argazki Press



Zure biografian irakur daitekeenez, potretetan bidez errealtatea islatzea maite duzu, aurpegiak eta haien intimitasuna interesatzen zaizkizu. Zergatik?

Kontenplazioarekin parekatzen dut potretak margotzea. Pertsona bat modu desberdinean, lasaiki ezagutzeko parada ematen dit horrek, ezen proiektuak batzen gaituenek une izugarria partekatzen baitugu. Batzuetan solasten gara, batzuetan isilik gaude, sentsazioak grabatuz otzanki. Oroz gainetik aurpegia margotzea dut gogoko jendearen atal gakoa delako. Zizeronek zioenez, begiak arimaren leihoak dira; hainbeste dago begitartean, ez bakarrik fisionomia, baina pertsonaren izatea, karakterea, umorea. Horren lekuko izateak, norbanakotasuna preziatu ahal izateak, azaletik harago joateak liluratzen nau. Baina aldi berean, osotasunean islatu nahi dut, norbanakoa: nor ote da? Modu osoan, ez bakarrik aurpegian kontzentratuz margotzen saiatzen naiz, jendea bere espazioan eta denboran kokatuz. Pertsona bere egunerokotasunean harrapatu nahi dut, jantzia, dagokion ohiko ingurumenean.

Zer du motibazio horrek ikustekorik antropologian eta zientzia sozialetan egin dituzun ikasketekin eta ikerketekin?

Zientzia sozialetan, helburua jarrera soziala ulertzea da, azaldu eta hortik teoriak eraikitzeko, beste gertakari sozialei aplikatzeko. Antropologia sozialaren berezitasuna da ikerketarako bere metodoa, etnografia, eskatzen baitu



“Margolaritza errealista aktualitatekoa izanen da, beti ere gaurko errealtatea agertzen badu, hemengo eta oraingo jendeak”.

ikerleak denbora asko iragatea arakutzen duen eremuan, jendeekin, haiekin komunikatuz, haien bizipenak ezagutuz, eta haien esperientzien argitan daramaten bizitza ulertzen saiatuz. Halaber, margolaritza errealistan. Ikusten dudana birsortzea da nire desmarta. Osagai objektiboak —demagun argiaren efektua aurpegiaren gainean— kontuan hartu behar dira. Horren bikoiztea zaila da pertsona asko mugitzen bada. Bat-batekotasuna eta naturalismoa bilatzen ditut eta saiatzen naiz irudia sortzen ikuspegi analitikoarekin. Baina jendea zer angelutatik begiratzen dudana hautatzen dut, beraz inkontzienteki izaki hartaz sentitzen dudana margotzen dut eta iruzkin soziala egiten dut. Edertasunaren zentzua ematea ere oso garrantzitsua da: ikaragarri maite dut gauzen gainean argiaren ondorioa begiztatzea.

Ildo errealistaz gain beste bide batek tiratzen al zaitu?

Potretak liluratzen nau eta ez da sekulan hondoa jotzen. Zenbat eta gehiago ezagutu tinduaren aukerak eta dimentsioak, orduan eta gusturago nago. Aldi berean, potreta berria

hasi aitzin beldurrez nago beti. Ez da egiteko erraza baina erronka handi horrek kilikatzen nau eta zalantzan mantentzen. Aurpegi bakoitza hain da errepikaezin eta bakar, ezin baitiot errutinan erortzea baimendu nire buruari. Potreta berria egitea lehen aldirako egitea bezala da.

Asko inspiratzen naute itxura askotako konposizioak burutu dituzten artistek. Horieta, mexikar muralistak, italiar Berpizkundeko freska egileak eta XIX. mendeko euskaldun errealistak. Duela sei urte holako eszena handia ekoizteko anbizioa piztu zait, jendeen esperientzien berri kontatzeko. Ez dut oraindik gauzatu baliabide eskasez, baina aldi berean, pentsatzen dudalako kontzentratu behar dudala banakoak oihal baten gainean tindatzera, haien singularitatea azaleratzeko. Esploratu nahi dut hori, eta gero eszena handien proiektu zailagoa abiatuko dut.

Arkatzez margotzeak ere erotzen nau. Jostatzen naiz asmatutako pertsonaien krokisak egiten. Renon nagoenez, duela zenbait urte ekoitzi nituen arkatz margoen saila hasiko dut berriro. Orduan Euskal Herriko egunerokotasuneko islak egiten nituen. Besteak beste, ideia nuen herri horren itxura desberdina erakustea, klixetetik urrun. Azkenik, aurtengo urtarrilaren lehenetik blog bat jarri dut martxan (<http://bit.ly/uQKZe5>), egunero irudi bana agertzeko xedearekin. Urte osoan irau-naraziko dut. Batetik, nire burua egunero arkatza hartzera bortxatzeko. Eta bestetik, margolaritzan ditudan proiektu handiagoen prestakuntzako lana izan daitezen.

“Gaurko margolari errealistak aldiz, gutxiago interesatzen zaizkit. Iruditzen zait askotan kolore artifizialak erabiltzen dituztela, teknizitate gehiegi daukatela eta emozio eskasia”

Nora begiratzen duzu gaurko margolaritzaren baitan? Zer lanek, zer norabidek inspiratzen zaituzte?

Margolari asko bezala, XV. mendean hasi eta XIX. mendera arteko margo ala zizel lanei begiratzetik ez naiz asetzen. Ezta artista bakoitzak argia harrapatzeko, natura islatzeko eta forma konposatzeko zein itzultzeko duen molde sotila begiratzetik ere. Ikaragarri maite ditut Joaquín Sorolla eta Antonio Ortiz de Echagüe. Nire interesetatik hurbil dagoen modu etnografikoan margotzen dute. Kathe Kollwitz alemaniarrek asko inspiratzen nau. Bere lanak duen sentsibiltateaz eta indarraz gain artista konprometitua zelako. Gaurko margolari errealistak aldiz, gutxiago interesatzen zaizkit. Iruditzen zait askotan kolore artifizialak erabiltzen dituztela, teknizitate gehiegi daukatela eta emozio eskasia. Arte garaikidean hurbilago zaizkit instalazioak, argazkigintza, bideoak edota pintura abstraktua eta zizelkaritza. Haietan sentitzen dut bir-

tuositate teknikoa, irudiaren indarra eta istorio bat kontatzeko gaitasuna.

Beharrezkoa zaizu gaurko tendentzien bilatzea? Non egiten duzu bilaketa lan hori?

Beste artisten ezagutza egin ohi dut egoera desberdinetan lan egiteko ohitura dudalako, arte eskoletara, estreinaldi eta erakusketetara joaten naizelako. Horri esker ideiak eta esperientziak elkar trukatzeko ditugu. Komunitate handi baten kide izatea bezalakoa da, baina lotua izan gabe. Florentzian eta Madrilan egon nintzenetik margolari errealista asko ezagutzen dut. Haietatik asko Britainia Handian edo AEBetan daude. Baina nire ustez, azken batean, inportanteena jendarteko gainontzeko aktoreen ondoan egotea da, artearen mundu konbentzionalean gahotu gabe. Hori gabe, gure mundu hetsian egoten gara, hots, gure buruei baizik ez diegu hitz egiten eta hori niretzat, artista izatearen kontrakoa da. Margolari gisa, ez nau modak kezkatzen, zerk saltzen duen, arreta zerk deitzen duen, zerk ez... Erakartzen nauena dut segitzen: jendeekiko eta naturarekiko harreman zuzena. Askotan erraten didate margoa iraganekoa dela, tradizionala dela, ez duela gaurko mundu hiperteknologizatuan zentzurik. Baina zergatik iraganeko maisuen lanek erakartzen gaituzte hainbeste oraindik? Margolaritza ekaiarekiko harreman zuzenean da, beraz beti dago aktualitatean. Margolaritza errealista ere aktualitatekoa izanen da, beti ere gaurko errealtatea agertzen badu, hemengo eta oraingo jendeak.

Ingalaterran, Euskal Herrian, Italian, AEBetan... bizi zara aldiari. Han eta hemen margotzen duzu. Hots, "estudio ibiltaria" duzula erran daiteke?



Zoé Brayren autoerreturatu bikoitza lerroon gainean.


Azken dozena urte honetan Florentzian bizi izan naiz, han ikasten eta lan egiten nuelako arteko bi eskolatan eta unibertsitatean. Unibertsitateko ikerketak amaiturik, margolaritza jarraitu nahi izan dut. Orduetik, gutxienez urtean lau hilabeterako antolatzen naiz Euskal Herrira etortzeko eta helburu hori lortzeko. Jendearen etxean bertan margotzen dut, nagusiki. Zenbait urtez tailer bat izan dut Florentzian eta Donostian. Uda honetan Berlingen nengoen eta han tailerra izan dut bi hilabetez. Asko gustatuko litzaidake neronena edukitzea, baita nire "egoitza" ere. Orain arte ez da posible izan, bate-tik, baliabide eskasez; bestetik, jendearekin leku desberdinetan lan egiteko gogoia nuelako. Inprobisatzea asko gustatzen zait, nola ere

jendearen etxean margotzea, dagokion ingurumenean. Tailerrean baizik ez baduzu lan egiten gehiegizko erosotasunean eta errutinan erortzeko arriskua duzu, errepikapenean. Bizitza nahi dut margotu eta horretarako lohi-tu behar da.

Nomadismo hausnartu horrek zer ekartzen dio zure arteari?

Uste dut nire biziko esperientzia leku desberdinetan egin izanak irakatsi didala errazkiago egokitzen egoera desberdinen aurrean. Beraz, aiseago erlatibizatzen ditut gauzak eta haien konplexutasuna errazkiago neurtzen dut, baita ikuspuntu desberdinak ere. Gorabeherak izaten dira, bakardadea, beldurra, baita zalantza asko ere. Baina ororen buru, aberasgarria da. Horrek guztiak gogoia ematen dit jende biziaren aniztasuna margoetan islatzeko. Eta bultzatzen nau potretaren bidez humanitatearen jatorria bilatzera. ■





Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

K R I T I K A

Igor Estankona

Aitzakiaren bat jarri behar banio *Scanner*-i, esango nuke uneka galdu egiten duela nerbioa, bizitzaren alderdi ilunean guztiz sartu barik egiten dituela zenbait itzulinguru, eta poema indartsuen ondoan gatz bakoak irakurri behar izateak penatu nauela. *Zuria*, *biguna*, *bustia* edo *Desertua* edo *Oinen arteko butsunea* edo *Inventarium* poema liburuaren alderdi makalaren adibide dira. Trazu fin eta sinpledu zatietan gauza asko kontaktzen ditu Leire Bilbaok. Sinpletasunari uko egin eta sinbolo eta konplikazioetan galtzen denean, oster, gozo sartu bai, baina ez da ailegaten.



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Fuegos olímpicos.
Estricalla.
Autoekoizpena.
Iraupena: 13'37".
10 euro.

Sua dario errebeldiari

ZARAGOZA, KANTABRIA ETA IRUNGO partaideak dituen talde oldarkor honek bigarren eraso gauzatu du mundu osoan zabaltzen ari den errebeldia, sua eta iraultza aintzat hartuta. Partaideen jatorria kontuan hartzen badugu (El Corazón del Sapo, Kloakao...), ez da harrizkekoa amorrazio eta erritmo biziko *in-your-face* hardcorea egiteari eustea; eta poztekoa da, gainera, gutxi direlako halako emaitza lortzen duten taldeak. Aurreko lana-

ren ildo beretik, sei kantetatik erdia euskaraz eta beste erdia gaztelaniaz idatzi dituzte, horietako bat Cosmic Psychos talde australiarraren bertsioa. Estricallaren ildo eskola zaharreko hardcorea bada ere, *Bailes imposiblesen*, *La insurrecciónen* eta *La alucinante venganza*, abiadura biziaren artean, gitarra rockeroagoentzat tarte txiki bat ere gorde dute.

www.myspace.com/esticalla

Estricalla

«Ezin da errebelde izan, araua errebelde izatea bada»

Bada oraindik eskola zaharreko hardcorerik?

Bai: Powertrip, JAN, Bajo Presion, Stupenda Jones, Trigger Travis, Flyshit, Humilitate, Kaleginez, 25 Coming Fire, Fourscore... Jende asko hardcorera aktibismo politikotik hurbildu ginen eta beste batzuek alderantziz egin zuten bidaia, baina une batean bat egin genuen. 1990eko hamarkadan baina, sistemak punk jarrera eta errebeldia bereganatu zituen. Bizi genuena pasa zen. Orain askorentzat hardcorea iPodean deskargatutako melodiak dira, mamirik gabeko hitzak, musikari kuttunaren zapatillak erostea... Iragana ez da beti hobia eta gaur egungoa bizi behar da. Ezin da errebelde izan, araua errebelde izatea bada.

Zer du zuentzat punk-hardcore horrek?

Energia, jarrera, konpromisoa, ilusioa, errebeldia, bizitza...



“Su olimpikoak”. Zortzi uztaiak pizteko baino su handiagoa behar da?

Bai, jendearen haserre eta gogaitzea eta mundu berri baten aldeko ilusioa bost kontinenteetatik barrena doaz bolbora gisa. Azkenean sistemak polizia baino suhiltzaile gehiago beharko ditu.

Nola eraldatu historia?

Historia eraldatzen dugu zapaltzen gaituen zerbaiten kontra borrokatzen dugunean. Historiaren kontzeptua ez da mugiezina, ez da

museo bat, ezta bere barruan giltzaperatuta egoteko zerbait ere. Historia bizirik dago, mugimenduan, eta pertsonen eta herrien idazten dute.

Gogoan dugu, Guantánamo mediatikoaz gain, Intxaurren ere hor dagoela?

Tortura indarrean dago gaur egun eta

Euskal Herriaren kontra Espainiako Estatuak duen gerraren oinarrietako bat da. Politikariek ez dute inoiz lakra hori deuseztatu nahi izan eta hedabide gehienek ezkutatu egin dute. Indarkeriaren bukaeraz horrenbeste hitz egiten duten une honetan, Estatuak zigorrak gabeko indarkeria isil hori ezabatu beharko luke. Intxaurrendoko bainuontziak hustu, argiak itzali eta kanpamendua desegin dezatela. ■



Ezpalak

JON TORNER

Xabier Elorriaga eta Liliana Canavi omenduko ditu Zinebik

Zinebi zinema dokumentalaren eta film laburren Bilboko nazioarteko jaialdiak Xabier Elorriaga aktorea eta Liliana Canavi zuzendaria omenduko ditu aurten. Azaroaren 11tik 18ra egingo da jaialdiaren 53. edizioa. Aurten, estreinakoz, emanaldi eta jarduera gehienak Golem zinema aretoetan eta Alondegiko auditorio nagusian izango dira. Orotara 3.000 film aurkeztu dira, eta horietatik 73 lehiatuko dira Sail Ofizialean. Tartean Euskal Herriko hamaika lan daude: *Urrezko eraztuna* (Jon Garaño), *Zeinek gehiago irau*n (Gregorio Muro), *Errudun sentitzen naiz* (Roberto Caston), *She's Lost Control* (Haritz Zubillaga), *December* (Jose Muniain), *Muy cerca* (Ivan Caso), *Por los camareros* (Javier Etxaniz eta Gregorio Muro), *La casa del lago* (Galder Gaztelu-Urrutia), *Agujero* (Roberto San Sebastian), *Una última bala* (Jon Aitz Urrutxi) eta *Cuatro estaciones* (Niko Vázquez).

Eguzki Bideoak kolektiboak webgunearen (<http://eguzki.communia.org/eu>) itxura aldatu du. Hamar hilabeteko lanaren emaitza da. Bertan, azken urteotan egindako dokumentalak, grabazioak eta kartelak bildu dituzte, besteak beste. Egunotan hainbat dokumental eta eduki berri sartzen ari dira, online eta hainbat hizkuntzarako azpiztituluekin ikusgai daude. Kontrainformazioan eta kultura eta Internet librean oinarritzen diren lan hauek euskarri fisikoan ere eskuagarri daude orain, online denda berriari esker.

Periscopio egitasmoaren barruan, fotokazetaritzan diharduten egileen 163 argazki –World Press Photo lehiaketakoak– erakutsiko dira Gasteizko Hiri gunea aretoan, abenduaren 11ra bitartean. Orotara hamaika erakusketak osatuko dute Periscopioaren 6. edizioa, besteak beste, Reuters agentziako argazkilariek 2010eko gertakari esanguratsuenen laburpen gisa egindako fotoez osatutakioa, edota Pierre Terdjamlak Israelgo estatuaz eginiko *Apurtutako ametsa* izenekoak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

publizitatea

Lurdes Auzmendi: “Elebideri esker, Euskadiko herritarrek gero eta hobeto ezagutzen dituzte beren hizkuntza eskubideak”

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Elebiden, hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuan, 2010. urtean jasotako intzidentzien berri eman, eta kanpaina berria aurkeztu du.

Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak 2010ean herritarrek Elebide zerbitzuaren bidez jarritako kexen, kontsulten, eskaeren eta iradokizunen datuak eskaini ditu. Sailburuordeak emandako datuen arabera, 2009koan 212 kexa bildu ziren guztira. Horietarik, 209 euskarari zegozkion eta 3 gaztelaniari. 2010ean, 261 kexa aurkeztu dira, horietarik 254 euskarari dagozkiola eta 7 gaztelaniari. Hau da, herritarrek erabilitako hizkuntza kasuen ia ehuneko ehun, zehazki % 98,6, euskara izan zela, eta %1,4 soilik gaztelania.

Auzmendiren hitzetan, “datu soil horrek adierazten du, Elebideri eta antzeko erakunde eta elkarteei esker, Euskadiko herritarrek gero eta hobeto ezagutzen dituztela beren hizkuntza eskubideak. Pozgarria da ikustea sailburuordetza bultzaturiko sentiberatze-kanpainak arrakastatsuak izan direla”.

Euskararen normalizazioa pausoz pauso doa, gelditu gabe, aipatu du sailburuordeak “eta ez du atzera egiterik. Euskadin berezko hizkuntzaren alde lortutako adostasun politiko eta soziala sasoian dago, eta arrakasta horretan erakundeek ardura izan dute”.

Patxi Martinez de Marigorta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak *Elebiden zure hizkuntza eskubideak babesten ditugu* leloa duen kanpaina aurkeztu du, horixe baita, azken batean, gure helburua: herritar bakoitzaren hizkuntza eskubideak bermatuta izatea”.



MUNDUORO
euskaraz

Abarak

JON TORNER

Haurtzaro mutuegia

Stitches. David Small. Random House Mondadori (2010).
336 orrialde (18 x 23,5 zm), zuri-beltzean. 20 euro.



KRITIKARI eta irakurle askorentzat iaz argitaratutako komikirik ederrenetakoa da David Small estatubatuarren *Stitches*. Badira batzuk, ordea, hainbesterako ez dela diotenak. Horietako bat naiz ni. Autobiografia honek, genero bereko beste hainbat obrak egiten duen bezala, noiz edo noiz hemen aipatutako Craig Thompson-en *Blankets*-ek, esaterako, autorearen haurtzaro-gaztaroa kutsu dramatikoekin jasotzen du. Dramatikoei. Egia da Smallen haurtzaroak —eztarriko minbiziak markatua— gogorra behar zuela izan, hark isilean sufritutakoa nekez imajina dezakegula, baina istorioa tonu alai edo ironikogoa erabilita kontatzerik bazegoen, “seriotasuna” anputatu barik, alzheimerari eta autismoari heltzen dieten *Arrugas* eta *María y yo* komikiek egiten duten moduan. Badira bideak gai batzuk (gaixotasuna, bakardadea, beldurra...) beste era batean kontatzeko, hausnartzera bultzatuz, gainera. *Stitchek* lortzen ez duena, portzierto.

Isiltasunak markatzen du narrazioa. Etxekoek zarata bidez transmititzen dituzte sentimenduak: aitzak boxeo-zakua astinduz, amak sukaldeko armairuekin kolpeak emanez, anaiak bateriarekin... eta Smallek bere marrazkiekin. Zuri-beltzeko marrazkiak, komikikoak, esan nahi dugu, ez dira izugarri landuak, baina egia zor, euren apaltasunean, paisajeak (argi-ilunak) eta bereziki pertsonaien keinuak ongi sintetizatzen dituzte, sarri beldurgarri, batzuetan patetiko bilakatzen diren gurasoenak bereziki. Isilune luzeak ditu istorioak, apenas du ahots narratibo eta elkarrizketarik, baina irudiek lortzen dute hitzez esaten ez dena (edo esaterik ez dagoena) transmititzea. Tamalez, etengabe atmosfera dramatiko horretan igeri egiteak ito egiten du eta, are okerrago, gaiari buruz merezi bezala hausnartze-ko zirrikiturik ez du uzten.



Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

BERTSO HITZALDIA

MAIALEN LUJANBIO

Azaroak 7, 20:00

Ibaiondoko GE

NOBELA BELTZA EUSKERAZ BIBLIOGRAFIA ERAKUSKETA

Azaroak 21 - abenduak 7

Judimendi GEko helduentzako liburutegia

HIRIAK ETA NOBELA BELTZA

HITZALDIA JON ARRETXEREKIN

Azaroak 30, 19:00

Judimendi GEko helduentzako liburutegia

KONTZERTUAK

BIZARDUNAK

Azaroak 4, 22:30

Hell Dorado

KATAMALO

Azaroak 6, 20:00

Jimmy Jazz

KULTUR CAMPUS: LABURMETRAIAK

GOTZON ELORZAREN FILM LABUR

DOKUMENTALAK

Azaroak 24, 20:00

Florida Zinema,

ANTZERKIA

EURIA ESAN ETA EURIA ERORTZEA

Azaroak 22, 20:30

Principal antzokia

EMEKI-EMEKI URTZEN

Haurtxoentzako antzerkia

Azaroak 30, 18:00

Pilareko GE-ko familia liburutegia

MUNSTROA

Azaroak 29, 20:30

Parral taberna

IPUIN KONTAKETA

IKUSI-MAKUSI

Azaroak 16, 18:00 (4-6 urte)

Arana G.E.-ko liburutegian

LUR ETA URTZIREN BIDAIA

Azaroak 21, 18:00 (6-9 urte)

Ibaiondoko gizarte etxea

ADI EGON, LASTER
EUSKARAREN ASTEKO PROGRAMAZIOA!

MAITE DUZUN HURA,
EUSKARAZ!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Ihesi

Testua eta argazkiak:
GORKA AZKARATE



Euskal Herria ezagutuz:
Aezkoako harana (Nafarroa)

Baigura, Pirinioen gaineko talaia paregabea

Aezkoako harana Nafarroako ibarrik berezietakoa da, urteko edozein sasoitan hainbat bisitari jasotzen dituen; ezin esan, ordea, txango honetan igotzea proposatzen dugun gailurra Euskal Herriko mendi bisitatuenen zerrendan dagoenik: Baigura (1.477 m). Haatik, Nafar Pirinioen gaineko ikuspegi irekiaz gozatu nahi duen ororentzat benetan gomendagarria da zailtasun txikia duen tontor zabal honetara ostera egitea.

AEZKOA IBARRA Nafar Pirinioetan dago, eta bederatzi herrik osatzen dute: Abaurregaina, Abaurrepea, Aria, Arike, Garaioa, Garralda, Hiriberri, Orbaizeta eta Orbara. Iparraldean, Nafarroa Behereko

Garazi ibarrarekin egiten du muga, hegoaldean Urraulgoiti ibarrarekin, ekialdean Zaraitzu ibarrarekin eta mendebaldean Artzibar, Oroz-Betelu, Orreaga eta Auritz herrie-kin.

Ibarreko paisaiako bereizgarri nagusia basoak dira; hedaduraz den bezainbatean, Euskal Herriko baso-rik zabalenak inguru honetan daude. Ibarreko azalera handiena hartzen dute, bistan denez. Basoen

Baigura menditik ikuspegia mendebalderantz: Iruñerria, Elomendi, Itoizko urtegia eta Beriain, besteak beste.





Goiko argazkian, Abaurregainako eliza. Azpian, garaia Hiriberrin. Nafarroan zutik dirauten 22 garaietatik, hamabost Aezkoa ibarrean daude.

ustia ketaz gain, abeltzaintzak eta nekazaritzak pisu handia dute Aezkoan, eta azken hamarkadetan baita turismoak ere. Paisaiaren edertasunak erakarririk, geroz eta bisitari gehiago gerturatzeko dira txoko mistriotsuetan lasaitasuna eta bakea aurkitu asmoz. Turismoaren bultzadak Aezkoa ibarra biztanlez hustea eragotzi du neurri handi batean.

Euskal Herriko gailurrik garaiekin Aezkoa ibarretik oso gertu dauden arren, garaiera apal xamarreko mendiak ditu, oro har, bisitatuko dugun paraje zoragarri honek. Alabaina, Aezkoa ibarreko mendi guztiak 1.500 metrotik beherakoak diren arren, Nafarroako hamar herririk altuenetako lau Aezkoan daude, Euskal Herriko herririk garaiekin titulua daukan Abaurregaina (1.040 m) tartean. Proposatuko dugun txangoan, 1.477 metroko altuera duen Baigura mendira igoko gara, Aezkoa haranaren eta Nafar Pirinio garaiekin behatoki ikusgarrienetakora.

Edonork egiteko moduko igoera

Abaurregaina eta Jaurrieta lotzen dituen Erremendiako gainean hasi-

ko dugu txangoa; edo, bestela esanda, Aezkoa eta Zaraitzuko ibarrak lotzen dituen lepoan. Erremendiako gainetik bertatik has gaitezke oinez, edo bestela, nahi izatera, posible da bigarren mailako errepide bati jarraiki bizpahiru kilometro autoz egitea, aparkaleku bat, hiruzpalau mahai eta, metro gutxira, iturri koxkor bat dauzkan aisi-gune bateraino. Hortik abiatuta, sei kilometro inguruko bidea izango dugu Baigurako tontorreraino, eta 450 metro inguruko igoera. Edonork egin dezakeen zailtasun handirik gabeko ibilaldi ederra.

Atsedean gune horretatik abiatuz gero, Nafarroako errege-abelbidearen margo ikur zuri-gorri jarraituko diegu, soilgune zabalak eta baso gordeak tartekatzen dituen xenda magikoan barrena. Bideari jarraitzeko zail-

tasun handirik ez dagoen arren, margo ikurrei arretaz begiratzea komeni da zenbait bidegurutzetan, bide dezente gurutatzen baitira elkarrekin hasierako zati horretan. Hala, basoa utzi eta hartxintzar pista nagusiago batera iritsiko gara, soilgune zabala zeharkatzen duena. Pistan aurrera egingo dugu, Aretako lepora bidean, baina lepora iritsi baino pixka bat lehenago eskuineta- ra joko dugu, maldan gora abiatzen den bidexkari jarraiki. Bide horri arretaz jarraituz, Baigurako mendia- ren bizkar zabalera igoko gara.

CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com



Lerro hauen gainean, basoa Baigura bidean. Ezkerrean Abaurregaina herriaren ikuspegia, atzean Berrendi eta Abodi dituela. Hurrengo orrialdean, Orbaizetako arma-ola.

Baigura mendiaren bizkarra era guztietako zuhaitz eta adaxkek estaltzen dute hein handi batean, baina baso itxi xamarrak baditu zenbait zirrikitu estrategiko ere, zeintzuetatik Pirinioak ikuskatu baitaitezkeen. Atzamar puntaz ukitzeko bezain gertu daudela irudituko zaigu Ori, Auñamendi, Hiru Erregeen Mahaia eta enparauak. Igoeraren azken zati horretan, xenda ez da, tarte batean behintzat, hain nabarmena, baina badira norabide egokia aukeratzen lagunduko diguten zenbait xehetasun. Batetik, etengabe mendebalderantz jo dugula jakitea. Garaiera galtzea ere ez da komeni, eta iguera oso gogorrik ez dagoen arren, beti gorantz jo behar dugu. Azkenik, basoa zeharkatzen duen hesi edo itxitura bat ere

erreferentzia egokia da: Baigurako mendi bizkarrean barrena aurrera goazela, itxitura horretatik gehiegi ez aldentzea komeniko zaigu. Aurrera egin ahala, Baigura tontorra zenbat eta hurbilago eduki, bidexka geroz eta nabarmenagoak agertuko zaizkigu, baita harri-pilatxo edo *kairn* zenbait ere, lekurik esanguratsuenetan, gailur nagusia hurbil daukagun seinale. Azken ahalegintxo egin eta Baigura tontorrera (1.477 m) iritsiko gara.

Baigura, talaia berdingabea

Baigura gaina Nafar Pirinioetako talaia ederrena dela esatea ez da gehiegikeria. Begiratu, oharkabea, ekialderantz joatea litekeena den arren, ipar-ekialdean ageri den Ori mendia izango da, ziurrenik, gure

arreta modu errazenean bereganatuko duena. Kantauri itsasotik gatozela, Ori da 2.000 metroen langa gainditzen duen lehenengo tontorra, hegi lerdinak eta itxura benetan handia daukana. Ekialderago, Belagoa ibarreko gailurrik garaienak, Otso-gorri, Lakartxela eta Larrondo, eta nola ez, Euskal Herriko mugan –eta mugaz harago, zenbait kasutan– dauden Arlas, Auñamendi, Soum-couy, Hiru Erregeen Mahaia, Petretxema, Atxerito eta beste. Eguraldiak lagunduz gero, gainera, Aragoiko lurretan dauden Bisaurin eta Collarada gailurrak ere begien bistan izango ditugu. Itzela. Esan gabe doa Iratiko oihana hegoaldetik mugatzen duen Abodiko mendilerroa –Berrenditik hasi eta Abodiraino– eta Mendizar, Okabe eta Bizkarze bezalako gailurrak, iparraldean, bertan izango ditugula, gure begien gozagarri. Begirada 360º-tan mugituz gero, Nafarroa eta Gipuzkoako beste hainbat mendi identifikatzeko aukera ere ez zaigu faltako, hala nola Beriain, Aizkorri, Aralar, Mandoegi, Adi, Auza, Saioa... Orduak eta orduak paisaiari beha egoteko moduan, beraz.



Itzulera bide beretik egingo dugu abiapuntu izan dugun aisi-gunera. Erremendia tontorreera igotzea ere posible da, zailtasun handirik gabe gainera, hango ikuspegia Baigurak eskaintzen duena baino mugatuagoa den arren.

Hamaika ikusteko Aezkoan

Aezkoa harana osatzen duten bederatzi herriek mendetan naturak eta gizakiak elkar nola hartu duten ikusteko hamaika adibide gordetzen dituzte. Mendi malkartsuak, baso itxiak... Baldintza gogorretara egokitu behar izan du gizakiak bere jarduna. Atsedena eta naturarekiko benetako kontaktua bilatzen duen bisitariarentzat, berriz, paradisua da Aezkoa.

Baigura mendiaz gain, bada bisitatxoa merezi duten beste hainbat

tontor, baita beste hainbat txoko esanguratsu ere. Aezkoa ibarreko ohiko txangoetako bat Aribetik abiatuta Garaioako haritz erraldoia jomuga duen ibilbidea da, joan-etorrian zazpi kilometro inguru luze den xenda ederra (erreportaje honen bigarren orrialdeko mapan adierazita dago). Ibilbidea zoragarria da zinez, eta Beteluko haritzia gertutik ezagutzeko parada emango digu, amaieran Garaioako haritz handia bertatik bertara ikusteko aukera ere izango dugularik. Adituen ustez, 600 urte inguru ditu haritzak, eta haren neurriak erraldoiak dira, badirenez: 23 metro luze eta 2,5 metroko diametroa gunerik zabalenean. Nafarroako beste toki batzuetan horrelako haritz handiak egon badauden arren, hau da, ziurrenik, garaiena. Enborra bera

barrutik hutsik egonik eraztunak zenbatzea zaila denez, zuhaitzak mila urtetik gora dituela esaten due-nik ere bada.

Bestalde, nabarmentzeko modukoa da haraneko garai edo gare kopurua. Nafarroan zutik dirauten 22 garaietatik, hamabost Aezkoa ibarrean daude. Antzina bihiak edo aleak hezetasunetik eta karraskariengandik babesteko erabili izan ziren eraikin hauetako asko egoera onean daude oraindik ere —berri-tuak izan dira zenbait—, nahiz eta egun beste zeregin batzuetarako erabiltzen diren nagusiki.

Egun bakarra motz geratuko zaigu Aezkoa ibarra bere osotasunean bisitatzeko, asko baitira ezagutzea merezi duten txokoak. Behatoki mordoxka dago, naturalak batzuk eta egokituak besteak. Abaurregaina kaskoa menderatzen duen San Migel haitzean, adibidez, Abaurrepea, Garralda eta haran osoaren gaineko ikuspegi ederraz gozatu ahal izango da. Minutu gutxian iritsiko gara, izen bereko ermita atzean utziz, behatoki natural paregabe horretara. Eta beste hamaika horrelako dago, ibar guztian zehar barreiatu-rik. Abaurregainan, era berean, *Hilerrien lorategia* izeneko artelana ere bisitatu dezakegu, elizaren atzealdean. Ezin aipatu gabe utzi, azkenik, Orbaizetako arma-ola zaharra, beharbada ibarreko txokorik bisitatuena, gida-liburu guztietan ageri dena. Ola zaharrak, ordea, lerro gutxi batzuetan ezin kabitu diren hainbat istorio gordetzen ditu bere murre zaharkituetan, besteren batean kontatuko ditugunak... ■



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

ANA ZAMBRANO

NEURRIAK HARTU ----- FIDEL		GAUALDIA ----- IXO		BIGUN, EZTI	 DANI BLANCO	IZOTZA ----- SETATSU		BURU EGIN ----- UNE, PUNTU		EGUNKARIAK SALTZEKO ERAIKINA ----- HAIZE TRESNA	
PERTSO- NAIAREN IZENA ----- LEINU						MARRA ----- BAKOITZAK BI					
						ITXURA, TAXU ----- APOEN BABESGARRI					
						PERTSO- NAIAREN ABIZENA ----- OTARREA					
TONA ----- IBAI GAINEKO PASABIDE		HANPADURA ----- ATARI						TINKO, IRMO ----- ESTOIZIS- MOAREN JA- RRAITZAILE			
				ESAKA ----- BIZKAIKO UDALERRIA						ITALIAKO IBAI NAGUSIA ----- SALNEURRI	
IBAI ONTZIAK	UR IZOZTU ----- DOTORE, LIRAIN				SASIA RTE, SASTRAKA ----- AFRIKAKO MENDIKATEA						BIHARA- MUNAK
								MOTELA ----- BATERE ATE GABE			
HAUR HIZKERAN, MUSUA ----- POSTU		DEKLINA- BIDE KASU ----- GURTZEA						ALDERDI JELTZALE ----- TORTURAREN AURKAKO TALDEA			
				ZUHAITZ IZENA ----- INTERJEK- ZIOA						ENERGIA ----- SODIOAREN SINBOLOA	
PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA ----- ONGARRI					URTEAREN SEIGARREN HILA ----- URANIOA						
								AUTOMO- BILAK			

	N	G				J	K
L	E	I	A	L		S	T
U	X	U	E			L	R
T	R	I	B	U	J	B	R
Z	U	E	N	F	A	S	I
		E	L	U	R	S	A
G	A	B	A	R	R	A	K
P	A	D	A	T	I	B	O
K	A	R	U	N	E	A	I
O	N	R	A	T	S	U	O

Azaroaren 5etik aurrera,



egunkariarekin

Mantangorriren eskulan tailerra

24 fitxaz osatutako eskulan bilduma

Adina: 6-12 urte

**sortuz jolasteko,
jolastuz sortzeko**



4 FITXAZ OSATUTAKO 6 SORTA

Azaroak 5, larunbata,
lehenengo sorta
BERRIA + 3,5 €

karpeta eta
ariketen CDA
OPARI

Nola eskuratu?

Azaroaren 5etik abenduaren 10era,
larunbatero kioskoan, BERRIArekin

Ipar Euskal Herriko irakurleek zuzenean eskatu:
(0034) 943 -30 43 45

Egilea: Karmele Cruz

Babesleak



Kultura, Gaitasun eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria info

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Karbono dioxido emisioak gora etenik gabe

EUROPAKO BATZORDEKO Ikerketarako Zentro Bateratuak eta Herbehereetako Ingurumenaren Neurketarako Agentziak argitaratu eman dute azken hogei urteetan CO2 emisioen eboluzioa erakusten duen txostena. Bertan irakur daiteke karbono dioxido emisioak %45 hazi direla 1990 eta 2010 urteen artean, eta guztira 33.000 milioi tona igorri direla.

Txostenean datu interesgarri bezain harrigarriak daude, honakoak adibidez: Europako Batasuna osatzen duten estatuek %7 gutxitu dituzte emisioak, Errusiak %28, eta AEBek %5 handitu ditu. Japonian, oro har, ez da aldaketa handirik izan igorpenetan, baina aurreko goranzko joera garbia agertu dute zentral nuklearren egoteren eraginez. Txinak, berriz, izugarri egin du gorantz, eta une honetan 6,8 tona emititzen ditu pertsonako eta urteko, Italiaren parean.



Ikusten denez, AEB eta garapen bidean dauden estatuak dira emisioetan buru.



Telefono eramangarriak eta minbizia

Danimarkan berriki egindako azterketa baten arabera telefono eramangarriak erabiltzeak ez du eraginik garuneko minbizi kopuruaren hazkundean. Ikerketa egiteko, 1982 eta 1995 urteen artean telefono-abonubatu kontratatatu zuten 358.403 pertsona aztertu zituzte. <http://ttiki.com/32135> (Frantsesez)

3D-ko telebista betaurreko berezirik gabe

Berlineko Heinrich Hertz Institutuko eta beste hainbat erakundetako ikerlariak MUSCADE proiektuan lanean ari dira 3D sistemak hobetzeko asmoz, eta jada lehen lorpenak eskuratu zituzte. Besteak beste, lau kameratan oinarritutako sistema batek zuzeneko transmisioak ahalbidetuko ditu.

<http://ttiki.com/32136> (Gaztelaniaz)

Wikipediatik automatikoki sortutako liburua

ISRAELGO TEHNION INSTITUTUKO hainbat ikerlarik *Bookit!* aplikazioa sortu dute. Horren bidez, erabiltzaileak emandako hitz gutxi batzuekin, Wikipediako artikulua hautatu eta kapituluak biltzen lotu daitezke, izenburua, aurkibidea eta irudiak erantsiz; hala sortutako liburua on-line irakur daiteke e-booken bidez, edo paperean, inprimatu eta gero.

Aplikazioaren oinarrian dagoen algoritmoak ez du indiskriminatuki biltzen, era adimentsuan baizik, eta erabiltzaileak emandako datuetan oinarrituz ideia garrantzitsuen analisia egiten du.

Software horrek oraingoz Wikipedian baino ez du funtzionatzen, baina jada planteatu dute beste web batzuetan aritzeko ideia. Hala ere, ikerketa lan gehiago beharko dira web horietara *Bookit!* moldatu ahal izateko.



Hondakin-urak, birus ezezagunen sehaska

Gaur egun 3.000 birus inguru ezagutzen dira, baina askoz gehiago dira ezezagunak. Barzelonako Unibertsitatean Rosina Gironés irakasleak zuzentzen duen ikertzaile taldeak hondakin-urak aztertu ditu, eta mundu oso bat aurkitu du han.

<http://ttiki.com/32137> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Amudaren hegala

ARRANTZAN, hegaluzetan eta hegalaburretan, artaburuaren zurikinarekin aritzen ziren garaietan, artoak (*Zea mays*) zuen sona egun duenaren bi halako behintzat izango zen, bikaina. Erritu berezienetakoa omen zen baserrietan artazuriketa. Koka gaitezen: negu beltza gorrienean, hur intxaur babarrun kui eta abarrez ganbara bete arto, txerri hil berriarekin gazikutxa ederki hornitua eta sendi osoa suaren inguruan, artazuriketaren gozo, giza-gozo. Artazuriketaren artaburu zuritu eta aletu egiten zen. Lan horretatik gai bat,



www.ceccam.org

artalea, eta bi hondakin, zurikina eta lokotxa, sortzen ziren. Hobeto esan, hiru gai, hirurak baliatzen baitziren. Baita zurikina ere. Artalea jasotzen zen bezalaxe gordetzen zen zurikina. Hortik baserri barruko zurikina tokiaren izena; barrika eta bukoiena pitarreta zen bezala, zurikinena zurikineta. Artoa Ameriketatik ekarri eta hemen lantzen hasi zirenean, bere ekoizpekin behar bezala lehortu eta jaso ahal izateko, ordura arteko dolare-baserriak handitu beste aukerarik ez zuten izan: zurikinak, lokotxak, aleak, zuztarrak...

Baterako ez bazen besterako artoaren emari guztiak probetxuzko gaiak ziren.

Oihalak eta hostoak bezala, zurikina bilgarri gisa erabili izan da papera eta plastikoaren aurretik. Lo gozo gosea asetzeko zurikinez betetzen ziren lastairak. Arrantzaleek zurikin berarekin bildutako amuarekin egiten zuten atuneta. Zurikin zapian bildutako amu horri amuda deitzen zioten. Bitxia izena.

Bitxiagoak baditu, baita xelebreak ere, zurikinak berak: maluta, kapaxa, kaloka, artamaluta, txurikin, xurikin, arto-zurikin, xuriondo, kapatxa, artazorro, mokol, borruztu, maillazto, mallasto, masalasto, kordotxa, espata, artakapela, kapula, mokotsa, xuriondo... Polit askoak bai tartean, baina nik gogokoen dudana beste bat da, artagona.

Artaburuaren zurikinarentzat zenbat hitz. Eta artaburu esateko?



Estetika

Hemen zerba (*Beta vulgaris* subsp. *vulgaris*) sail dotorea. Garai batean bi zerba mota erabiltzen ziren gure inguru honetan: berdea eta horia. Zakarxeagoa, garrazxeagoa lehena, finagoa bestea. Gaur egun kolore guztietakoak baratze guztietara hedatzen ari dira. Estetika polita dakarte zerba berri hauek gure baratzeetara. Estetika hori hirietako lorategietan ere ikusten da orain. Eta, zer esanik ez, baita plateretan ere.



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

“Aquellos duros antiguos...”

RIO DE JANEIRO, 1827ko AZAROA. *El defensor de Pedro* brigantina portutik abiatu zen Txinara bidean. Baina Afrikako kostaldera iristean, Benito Soto bigarren komandante galiziarra eta tripulazioko beste hamalau kide mutinatu egin ziren, eta gainerakoak hilda edo lehorrean utzita, itsasontziak erasotzeari ekin zioten. Pirata berriek zortzi ontzi abordatu zituzten Iberiar penintsulako

kostalde atlantikoan, 1830ean brigantina Cádiz eta San Fernando arteko uharritik gertu hondartu zen arte. Funtzionarioren bat erosita, Cádiz-en lehorre-raztea lortu zuten, inolako dokumentaziorik izan ez arren.

Nolanahi, iritsi berrien harrokeriak eta erakuskeriak erreze-loa piztu zuen Cádizko epaitegietan. Piratak atxilotu zituzten, baina Sotok alde egitea lortu zuen. Handik egun gutxira, Gibraltarren atxilotu eta heriotzara kondenatu zuten. Horrenbestez, historiak 74 urteko atsedena hartu zuen.

1904ko ekainaren 3an, Cádizko San Jose auzoko atuntokian, hainbat langile arrantzatutako atunen buruak eta hondakinak lurperatzen ari ziren, horietako batek harean hainbat “ogerleko” zahar topatu zituen. Berehala gainerako langileak eta auzokideak hondartzan erretanak egiten hasi ziren. Zurrumurrua agudo hedatu zen, eta atuntokiko arduradunek auzoko udaltzainen eta Guardia Zibil bikote baten laguntza

lortu arren, biharamunean jendetzak hondartza hartu zuen pikotxa, pala eta bahea eskutan.

Txanponak Espainiako Fernando VI.aren garaikoak ziren, eta “bi mundutako ogerleko” ere esan zitzaizen, ifrentzuan bi lur esfera zituztelako (argazkian, txanponetako bat, egun Cádizko Litografia Museoan dagoena). Zaila da hondartzan orotara zen-

bat txanpon aurkitu zituzten jakitea, askok isilean gorde baitzituzten, agintariak kenduko zizkien beldur.

Baina 1.500 inguru izan zirela uste da. 1805an, inguru horietan, *Defiances* ontzi frantziarra hondoratu zen, baina txanponak Sotoren gizonek ezkutatu harrapakinak zirela da hipotesirik onartuena.

1905eko inauterietan, altxor bilaketa herrikoia gertatu eta hilabete batzuetara, Los Anticuarios konpartsak *tanguillo* bati hitzak jarri zizkion “ogerleko zaharren” istorioa kontatzeko. “*Aquellos duros antiguos que tanto en Cádiz dieron que hablar...*” dio kantaren hasierak. Eta zeresanaz gain, zer kantatua ere eman dute mende luzean “ogerleko zahar” horiek. Gaur egun, Cádizeko kantu ezagunenetakoa da, himnoa ia, “feria” –jendez gainezka-ko hondartzak omen zuen itxura– eta “miseria” –herritarrak bertara bultzatu zituen errealitate gordina– erri-maren bidez uztartzen dituen doinua.



Arrastoak

Zer egin behar da nazien harresi atlantikoarekin?

HITLERREK, aliatuen inbasioari aurre egiteko, harresi atlantikoa delakoa eraikiarazi zuen Europako kostaldean, Ipar Euskal Herriatik hasi eta Eskandinaviaraino, Frantziako kostaldeko 1.287 kilometro hartuta. Bigarren Mundu Gerran eraikitako gotorleku, tunel, bunker, lubaki eta kuartel asko zutik eta itsasoari begira daude oraindik.

Frantziako zenbait elkarte arrasto horiek zaharberritzen hasi dira, eta polemika piztu da. Batzuek ondareztat jotzen dituzte, historiaren funtsezko ataltzat; eta badira Monumentu Historiko izendatzea eskatzen dutenak ere. Beste batzuek, aldiz, garai mingarrien oroigarri direla, eta, horregatik, suntsitu egin beharko lirakeela uste dute.



BRIAN LEACH CHRISTENSEN

Iñaki Antiguiedad

«Amaiurrek neurrian parte hartuko du Madrilen»

Bilbo, 1955. Hidrogeologian katedraduna. EHUKo irakaslea Leioan. HBko eta Euskal Herriarrok-eko ordezkaria izana Bizkaiko Batzar Nagusietan nahiz Eusko Legebiltzarrean. Amaiurreko zerrendaburua da Bizkaian -Espainiako Kongresurako- azaroaren 20ko hauteskundeetan.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Zer dela-eta berriz ere politikan? Politikaren arra daramazu? Zer da politika zuretzat?

Ez dut sekula politika modu profesionalean ulertu. Politika, zentzu zabalean, herritarrok egunerokotasunean parte hartzeko eta erabakitzeke eskubidea da, eta, gurean, beharra ere bai. Politika ulertzeko modu horrek eraman ninduen legebiltzarkide izatera Gasteizen, 11 urtez. Orain dela hamar urte utzi nuen politika instituzionala, eta orain berriz ere heldu diot. Baina ez orduan, ez orain, ez gero, politikatik bizitzeko inolako asmorik gabe. Politikaren inguruan segitzen dudanez, deitu naute eta parte hartu beharrean sentitu naiz. Politikaren arra daramadan? Igoal bai.

Zer izan behar luke politikak zuretzat?

Nik borroka ideologikoa landu nahi dut bereziki, iraunkortasunaren inguruan. Gustura sentitzen naiz eremu horretan, nire kontraesanetan sakontzeko ere balio dit. Oso kritikoa izan naiz ezker abertzalearekin hainbat gauzetan, baina guztiz bat nator azken bi urteetan emandako urratsekin. Batez ere, Rafa Diez, Arnaldo Otegi eta enparauek transatlantikoa birarazi zutenez gero. Bildurekin bat nator, eta Amaiurren nago orain.

Amaiurrek politika konbentzionala egingo al du? Kongresuko tribunan jardungo al duzu zuk?

Nik uste dut koherentziaz jokatu beharra dugula. Amaiur une historiko batean sortu da, lau sentsibildatek osatua, horietako hiruk itun estrategiko bat egin dute. Aralarrekin ez dago halakorik -nik dakidanez-, baina lauok ondo ikusten dute prozesuari segida emateko ahalik eta boto gehien lortzea azaroaren 20ko hauteskundeetan, jakinda instituzio espainiarrak dire-



la. Horregatik aipatu dut koheren-
tziak jokatzearena. Amaiurrek ezin
du normal-normal jardun Diputa-
tuen Kongresuan eta Senatuan, adi-
bidez, EAJk egiten duen bezala.
Inkoherentzia itzela litzateke egune-
roko politikan aritzea. Izan ere, gure
eskubideen ukazioa gauzatzen den
tokira goaz. Eta normal jardutea
euskal herritarroi dagozkigun esku-
bideak —kulturalak, sozialak, ekono-
mikoak...— han berehala lortu daitez-
keela onartzea litzateke. Amaiurrek
neurrian parte hartu behar du Madri-
len. Horrek ez du esan nahi iraga-
nean ezker abertzaleak egin zuen
bezala, inoiz ez joatea.

Kongresura zertara joan?

Estatuak politikaren normalizazio-
an badauka zer esanik eta eginik.
Hasteko, Aieteko Adierazpenaren
bigarren puntutik aurrera ekinez,
baita Gernikako Akordioaren hain-
bat arlo jorratzen. Guk arazoak
hemen konpondu behar direla
diogu, euskal indar politikoen
arteak. Eta, aldi berean, normaliza-
zioa politikoa gauzatzeko Madril-
en egongo gara. Euskal Herria subjek-
tu politiko bezala aldarrikatzeko
han egon behar delako, baita arlo
sozio-ekonomikoan aritzeko, baina,
esan bezala, beti neurrian.

“Ez goaz Madrilera kredentzialak har- tzera eta agur Ben-Hur” esan zigun Aralarreko Iñaki Aldekoak ARGIAN.

Bai, bai... argi dago une hau ez dela
kredentzialak hartzeko eta agur Ben-
Hur esateko. Baina ezin da ere, hara
joan eta esan: Madril en ztabaidatu-
ko den edozein gaik, zuzenean edo
zeharka, Euskal Herrian eraginik
izan dezakeenez gero hemen egon
behar dugu egunero. Hori onartzea
hemengo politikak handik guztiz
bideratu daitezkeela onartzea litzate-
ke. Gure helburua eta erreferentzia
Euskal Herria da. Beste gauza bat
da, erreferentzia horretatik Madril-
en ere politika egin behar izatea.

Neurrian, baina nolako politika?

Politika egiteko moldea hautsi
behar da. Hautatuak izango gare-
nok gauza asko dugu egiteko estatu
mailan: instituzioetan nahiz institu-
zioetatik kanpo. Esaterako, Andaluz-
ian edo Katalunian. Estatuan bi



“EAJk sinestarazi nahi du gestio bakarra dagoela, bada ez. Hau da: ‘Gestioa? Bakarra. Demokrazia? Bakarra’. Askatzeko garaia da, ez lotzekoa”.

krisi nagusi daude: bata ekono-
miko eta bestea lurraldearena. Esta-
tuan barrena jardunez alternatibak
planteatu daitezke krisi ekonomiko-
ari erantzuteko, baita lurraldeari
dagokion politikan ere gure ikus-
puntua agertzeko. Estatuko eta
Europako beste lurraldeekin komu-
nikatzeko eta lotzeko premia han-
dia daukagu. Hau da, kargua hartu-
ko dugu baina ez bakarrik Madrilgo
instituzioetan aritzeko. Amaiurrek
ikusi behar du noiz jardun Gortee-
tako osoko bilkuretan edo beste
foroetan. Krisia sozio-ekonomikoa
eta politikoa dela kontuan hartuta,
lehen neurriak, halabeharrez, Kon-
gresuan onartuko dira. Guk ezke-
rreko beste indar batzuekin —IU
ERC eta beste batzuekin— lan peda-
gogikoa egin behar dugu eta hau
esan: ezkerreko independentista
garenok Estatua sortu nahi dugu.
Edota hau esan ere: lege hau ona da
langileentzat eta ez da atera gabe
geratuko Amaiur ez dagoelako.

“Medizinen salneurria ez da euskal gaia? Nire ustez bai. Eta Espainiako Gortean erabakitzen da”, Geroa Baiko Uxue Barkosek esana.

Erraza da esatea “hemen denak
badu zer ikusirik Euskal Herriare-
kin”. Barkosek aipatu du medizinen
salneurria han eztabaidatu eta era-
baki behar dela. Iritziak iritzi, uneon
gauza horiek “txikikeriak” dira.
Dena den, euskal herritarrentzat
gauza ona dena ez da onartu gabe

geratuko, Amaiurren lauzpabost
botoak izan ez dituelako.

“Kongresuan Geroa Bairen ordezkari- rik ez badago, ez da nafar abertza- leonek ahotsik izango UPNri erantzute- ko” esan du ere

Hori esatea ere... Ni ez naiz bizkai-
tar modura nafarren zeretan sartu-
ko, baina Amaiurren izenean nafar
abertzaleak izango dira Madril-
en, eta Amaiurri botoa emango dioten
nafarrek ordezkaria izango dute, eta
izango da aipatu eskemaren
baruan. Bakoitza sortzen duen hiz-
tegiaren gatibu da. Guk esaten
badugu hau egingo dugula, hau
gingo dugu. Ez dugu egingo esan
ez duguna, beste batzuek esaten
dutelako Madril- en 24 orduz egon
behar dela. Bakoitzak esan dezala
nahi duena, jendeak aukera dezan.
EAJ izan Amaiur izan, baina bakoit-
za berearekin koherente izanda.

EAJ eta Amaiurren arteko lehia age- riko da jada.

EAJ urduri ikusten dut, batez ere
argudio batzuk ari delako erabiltzen
Amaiurren kontra edo ezker subira-
nistaren kontra. EAJk Bilduk ez
dakiela aldundiak eta udalak kudea-
tzen esaten duenean, adibidez. Izan
gaitezen serio, badago politika ges-
tionatzeko modu asko. EAJk sines-
tarazi nahi du gestio bakarra dagoe-
la, bada ez. Hau da: “Gestioa?
Bakarra. Demokrazia? Bakarra”
Askatzeko garaia da, ez lotzekoa.

Azkenaldion ematen ari diren urratsekin hitza askatu behar da. Iraganeko joera eksklusiboak utzi eta askatu behar dugu denok. EAJk edo Erkorekak dioenean: “Lehen ezker abertzaleak ez zuen Madrilera joan nahi. Zer aldatu da?”. Ezker abertzalean funtsezko hainbat gauza aldatu da, besteak beste, debate sakonaren ondoren eratorria den *Zutik Euskal Herria* ebazpena. Hor autokritika egin da, eta argi eta garbi esaten da: “Estrategia aldatu behar da, estrategia eraginkorra ezarri”. Arnaldo Otegi sarri esan duen bezala, “batera egin behar da, alde-bakarrekotasunetik egin behar da, indar metaketa eginez”. Ezker abertzaleak politika ulertzeko eta egiteko modua aldatzea erabaki du. Hortik dator indarrak metatze lana egitea euskal subiranismoaren barruan. Beraz, normala da orain urte batzuk Madrili begirako jarrera bera ez edukitzea. Aldaketa eman da eta ezker abertzaleak ez dio horri uko egingo.

Zer aldatu da trantsiziotik gaur arte?

Bada, Euskal Herriko independentziaren aldeko atxikimendua areagotu dela. Noiz egon da erabakitze-ko esparruaren aldeko jarrera nagusiagorik, euskal identitate handiagoa? Orduan edo orain? Bada, nik orain esango nuke. Bakoitzak baloratuko du urte hauetako politika nolakoa izan den, baina orain burujabetasunaren bidean salto kualitatiboa emateko aukerak aintzat hartu behar dira. Badakit Europar gaudela. Halere, guk estatuek daukaten burujabetasun bera nahi dugu, ez gehiago ez gutxiago. Eurentzat Estatua ona bada, gure-

tzat ere bai. Diferentzia batekin, eurena handia dela eta gurea txikia. Hau da, Estatua izateaz gain, gizar-tearen eta boterearen arteko hurbiltasuna landu dezakegu, hain zuzen ere gure lurraldea txikia delako.

“Orain arte batzuek jarri duten aitzakiarik ez dago, ETaren jarduna alegia. Beraz, inoiz baino handiagoa izango da ideien konfrontazioa”

Nola ikusten duzu ezker abertzalea aro berrian? Ezker abertzale berria sortuko al da?

Nik uste dut hasi dela hori ikusten jada. Politika abiadura handian doa, formazio politikoen birkokatze bat gertatzen ari da. Orain arte batzuek jarri duten aitzakiarik ez dago, ETaren jarduna alegia. Beraz, inoiz baino handiagoa izango da ideien konfrontazioa, konfrontazio ideologikoa. Horregatik batzuetan kezkatzen naiz, ez ote dugun ezkerretik oso diskurtso erraza izan, oposizioan egon garen bitartean balio izan duena, baina agian boterean gaudenean balio ez duena. Gauzak aldatzeko botereak eta kontrabotereak behar dira, beraz, gero eta beharrezkoago izango da hiztegiak komuneko zulotik botatzea, ez baitute balio ezta birziklatzeko ere. Hiztegiak araztegieta garbitu beharko dira, hitzak berraskatu behar dira politikaren berritze horretan. Hori guztia, formazio

politikoetan ematen ari diren birkokatze horrekin lotuta dago. Aurretzean batuketak eta zatiketak izan daitezke, baina bihar-etziko ezker abertzale berrian zein egongo den, ez dakit.

EAJren hegemoniari aurre egingo dio ezker abertzaleak? Zein neurrian?

Hegemoniak borrokaren ondorioa izan behar du, ez helburua. Hegemonia helduko da prozesu politikoen alde egiten baduzu, zure diskurtsoa eta koherentzia gordetzen badituzu. Alderdien helburua ahalik eta atxikimendu gehien lortzea da, bai hauteskundeetan bai hauetatik kanpo. Alegia, politika ez da bakarrik boto kopuruan neurtu behar, boto emaile aktiboa eta pasiboa aktibatu behar da. Alegia, EAJk eta ezkerreko subiranistek dauzkagun diskurtsoak oso diferenteak dira. EAJ orain arte nahiko eroso egon da, oztopoak zeudelako, orain, horiek kentzen doazen neurrian, hitzen berrikuntzaren bidez garai politiko berrira gogo.

Rafa Diez, Arnaldo Otegi eta kideak askatzeak lagundu luke horretan?

Jakina, eta ez bakarrik ezker abertzalearen trasatlantikoaren biran eragin handia izan dutelako, pakebete asko ere birarazi dute. Estatuak gero eta zailagoa du politikoki eta juridikoki haiek barruan egotea. Laster kalean izan behar dute. Noizko? Datorren Gobernuak kudeatu behar du hori. Badakite Rafa eta Arnaldo, Sonia, Miren eta Arkaitz –Bateragune auzikoak aipatu arren– gero eta denbora gehiago barruan pasa, orduan eta aktibo handiagoa dira herri honentzat. Zenbat eta beranduago atera, historiako letra gehiago bilduko dute. A20ko hauteskunde osten, autonomikoetan...

... Arnaldo Otegi lehendakari?

Nik gustura ikusiko nuke zeregin horretan. Arnaldo eta Rafa bezalako estrategia politiko gutxi dago herri honetan. Jende askok onartzen du hori, ezker abertzalekoa izan gabe ere. Ez berauek bakarrik, baina gure klase politiko triste honi erreparaturik, historiara hizki handiz pasako dira. ■



C'est un travail important.

Lan garrantzitsua bat da.

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala

FRANTSESA | EUSKARA | GAZTELANIA | INGELESA | ALEMANA

11itzulpen

www.11itzulpen.com

LUAarkitektoak

hirigintza
nirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitzak proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña

Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Justizia Saileko murrizketak

Trebatzaileak kalean, euskara airean

Murrizketak guztioi zaizkigu ezagun garaiotan. EAEko epaitegiak izan dira pairatzen azkenetarikoak. Edo zehatzago esanda, horietan euskararen presentzia areagotu nahi zuten langileak eta horretan ziharduten euskara trebatzaileak. Murrizketak direla eta, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak trebatzaileok kendu ditu.

IURE EIZAGIRRE

LAU URTEZ aritu dira euskara trebatzaileak epaitegietan lanean, Eusko Jaurlaritzak Justizia administrazioan euskara normalizatzeko martxan jarritako planaren barruan. EMUN lana euskalduntzeko kooperatibak, Bilboko Elkarlan euskaltegiekin lankidetzan, eskaini du zerbitzu hori urteotan. Irailean indarrak gabe geratzen zen EMUNekin sinatutako kontratua eta zerbitzu hori eskaintzeko deialdia egin zuen Eusko Jaurlaritzak udan. Lana euskalduntzeko kooperatibari esleitu zion berriro zerbitzua. Baina irailean, kontratua sinatzear zirela, Justizia Sailak murrizketak egin zituen, egitasmoa bertan behera utziz eta ordura arte lanean ziharduten hamalau trebatzaileak kaleratuz. Nerea Sainz de Murieta Getxoko epaitegiko langileak dioenez, berehalako gauza izan zen: “Mahai gainean nuen trebatzailearen idatzizko eta ahozko saioetarako izena emateko orria eta egun batetik bestera trebatzailearen agur mezua jaso nuen, bota egin zituztela esanez”. Idoia Mendia Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak emandako azalpenen arabera, aurrerantzean Jaurlaritzako teknikariek egingo dute trebatzaileen lana, epaitegietan euskarazko zerbitzua bermatuz.

Baina zeintzuk ziren trebatzaile horien zereginak? Gorka Blanco

EMUNeko trebatzailea ia lau urtez aritu da Gasteizko epaitegietan lanean. Bere betebeharrak lanean trebakuntzan oinarritzen zela azaldu du: “Langileek askotan aldaketa txikiak egiten dituzte erabiltzen dituzten dokumentuetan. Aldake-

“Batzuetan, dokumentuak ele bietan idaztea derrigorrezkoa denean, gaztelaniazkoa eta euskarazkoa ez datoz bat, euskaraz jarri beharrekoa ez dago ongi”

NEREA SAINZ DE MURIETA, GETXOKO EPAITEGIKO LANGILEA

tak gaztelaniaz egin ohi dituzte eta guk dokumentu elebidunetan egin beharrekoak euskaraz egiteko trebatzen genituen, batez ere”. Hori lantzeko trebakuntza saioak ematen zituen, terminologia juridikoa, fraseologia eta antzeko gaiak landuz langile euskaldunekin. Euskaldunak ez zirenei, berriz, euskarazko baliabideak erakusten zizkien. Horrez gain, erabilera sustatzeko ekintzak eta langileen motibazioa areagotzeko kanpainak jarri zituen martxan.

Getxoko epaitegietan ere antzera funtzionatzen zutela adierazi du Sainz de Murietak: “Guk dokumentu bat prestatzerakoan zalantzak bagenituen, trebatzaileak argitzen zizkigun”. Idatzizko saioetan gehienbat terminologia juridikoa lantzen zutela gaineratu du.

Idatzizko trebakuntza saio horiek borondatezkoak ziren, ahozko saioak bezalaxe. Blancoren ustez, “langile batzuek asko eskeretzen zuten zerbitzua, baina gauzak ele bietan sortzeko ahalegina egiten zutelako. Haien zat ezinbesteko tresna ginen trebatzaileok. Arazoa da beste batzuk ez zirela dokumentuak ele bietan sortzeaz arduratzen, eta ez zutela inolako arazorik moldaketa txikiak gaztelaniaz egin eta euskaraz egin gabe uzteko, alioan horretan lagunduko zien pertsona zutela jakin arren”.

Trebatzaileak gertu

Lana egiteko garaian euskarazko trebatzaileak hurbil izatearen garrantzia azpimarratu du Blancok. “Harreman zuzena genuen langileekin. Trebakuntza saioetan ez ezik, zerbait behar zutenean bazekiten telefonoz edo e-postaz jar zitezkeela harremanetan gurekin. Kontsulta pila bat jasotzen genituen eta bertan geundenez, langileengana joan eta momentuan egiten genituen itzul-

penak”. Horrekin bat dator Nerea Sainz de Murieta: “Euskaraz sortzen zitzaizkigun zalan-tzak argitzen zizkigun trebatzaileak, hau edo bestea nola jarri eta abar. Oraindik badugu Intranet bidez Eusko Jaurlaritzako teknikariei zalan-tzak bidaltzeko aukera, baina ez dakit erantzuna jasotzeko zenbat denbora pasa daitekeen, egunak agian. Trebatzailearekin erantzuna berehalakoa zen”. Blancok aurrerantzean teknikariak hiriburuetan bakarrik egongo direla argitu eta gune horietan euskararen erabilera nolabait bermatuko dela uste du. “Herri txikietan beste kontu bat da”, dio.

Gertutasun horren faltan, epaitegietako hainbat langilek euskara albo batera utzi dute eta lana gaztelania hutsez egiten ari dira jada. “Beste kasu batzuetan, dokumentuak ele bietan idaztea derrigorrezkoa denean, gaztelaniazkoa eta euskarazkoa ez datoz bat, euskaraz jarri beharrekoa ez dago ongi”, azaldu du Sainz de Murietak.

Euskara, harremanetarako hizkuntza

Euskara zerbitzu-hizkuntza bihurtzeaz gain, lan-hizkuntza bilakatzea, hau da, langileen arteko harremanetarako hizkuntza izatea, zuten helburu epaitegietako trebatzaileek. Sainz de Murietaren esanetan, horretan laguntzen zuten eurekin egindako ahozko saioek. Parte-hartzaile guztiak batu eta gai jakin batez hitz egiten zuten, lankideekin euskaraz aritzeko ohitura hartuz.



Epaitegietako hamalau euskara trebatzaile kalean geratu dira egun batetik bestera. Urriaren 6an, 60 bat lagunek elkarretaratzea egin zuten Bilboko Barroeta Aldamar kaleko epaitegietan.

“Orain arte 26 laguneko lantaldea ginen. Gaur egun hamabi dira. Orain arte egiten zen guztia egitea lortzen badute... Ezinezkoa da”

**GORKA BLANCO,
EMUNeko TREBATZAILEA**

“Hemen ohitura falta da eta jendeak ez du aukerarik bere inguruan euskaraz aritzeko, batzuek saio horietan baino ez zuten egiten euskaraz. Eta orain ezta hori ere”, azaldu du Getxoko epaitegiko langileak. Gai horri helduta, Blancok uste du Justizia Sailak jarritako teknikariak ez duela aurrerapausorik emango arlo horretan eta gaineratu

du zerbitzua hanka-motz geratuko dela bereziki horretan.

Bien bitartean Eusko Jaurlaritzako ordezkariak euskarazko zerbitzua bermatuko dela ziurtatu dute. Justizia Sailean beraien ohiko lanak egiteaz gain, epaitegietako langileen zalantzak argitzeaz arduratuko diren hamabi teknikari egongo dira. Blancoren iritziz, ordea, horrela ezinezkoa da euskarazko zerbitzua bermatzea: “Orain arte 26 laguneko lantaldea osatzen genuen teknikariak eta trebatzaileak. Gaur egun hamabi dira. Orain arte egiten zen guztia egitea lortzen badute... Ezinezkoa da”. Sainz de Murietak ere ez du uste horrela euskararen erabilera bermatzen denik. ■



Babeslea: EMUN



HIZKUNTZA KUDEAKETA ERAGINKORRA LORTZEKO BIDERIK ZUZENENA

- Hizkuntza aholkularitza eta euskara planak
- Euskara prestakuntzako modulu bereziak
- Itzulpen zerbitzua

www.emun.com
www.lantalana.com



DANI BLANCO



Eztabaida irekitzeko

Emilio López Adán

ETAK behin betirako utzi du ekintza armatua eta, oro har, ihardukitzeak baikorrak izan dira. Ahots batzuk ez dira entzun, hain segur baikortasun orokorraren erdian kezkatu agertzea itsusia delako. Puntu eztabaidatsuen berri eman nahi dut, nire arabera.

1. Borroka armatua utzi. Ondo egina, eta bazen garaia. Azken urteetako borroka armatuak on baino kalte gehiago egiten zuela gauza jakina zen. Batzuk atzo konturatu dira; beste batzuk duela hogeitun urte. Batzuek Estatuak egin manipulazioari eta ezker abertzalearen aurkako desmasiei lehentasuna eman diete; beste batzuk kezkatuak ziren gure gazteen kontzientzia librea ahultzen ari zelako, edozer egiteko diziplina itsuaren faborez. Batzuek edozein errebolta armatu kondenatu dute; beste batzuek zioten zapalkuntzaren aurkako borroka armatua zilegi bada ere, orain egiten zena desegoki eta aldrebesa zela. Bakoitzari berea eta, finean, denak ados: ETA, entzun, ontsa egina dunt!

2. Euskal Herriko jende abertzaleak burua jaso du. Hori atsedena! Azken denboretan jende anitz kikildu edo lotsatu zen; beste anitz bortxaz lege kanpo emanak. Ondorioz, Jaurilaritza espainolisten eskuetan, nazionalismo atzerritar erasokorra oilartua eta Euskal Herriko espainol anitz, borroka armatuaren biktime posible bezala beren burua ikusi edo imajinatuta, proiektu abertzalean integratzeko inongo gogorik gabe. Etsigarria zen eta askok bukaerarik ez genion ikusten. Engoitik, parada gehiago badugu EAJri alternatiba independentzia zalea edota antikapitalista osatzeko; instituzioetan euskalduntasuna defendatzeko posibilitateak ugaltu dira; abertzale ez diren euskaldun eta herritarrak proiektu komunean integratzeko bidea, zabaldu. Ez da gutxi.

3. Prozesuaren errelatoa: Garaileak? Galtzaileak? Errelato ederrenak ez du errealitatea aldatuko, ez baita klase sozialen eta multzo nazionalen arteko indar harremanen gaitetik pasatuko. Errelatoaren manipulazioaren eraginkortasunaz sinestea menskeria da. Hobe gertatu dena ahal den eta zintzoki azaldu. Berrogeita hamar urteko historia ezin da garaian garaiko parametroak kontutan hartu gabe aitatu. Nazionalismo iraultzaileen denboretan, European marxismoa ideologia nagusia zenean, sortu zen ETA, eta haren orduko pentsaera eta ekintzak garaiko ingurunean eman behar dira; oraingoak, oraingo parametroetan. Irizpide anakronikoak erabiltzea ez da metodo ona. Bestalde, ETArek historia ez da koskarik gabeko lerro zuzena: terrorismoa onartzeko erabakia haustura handi bat izan zen. Estatua makurtzeko jende zibilen aurkako atentatuak dira terrorismoa (300 biktime baino gehiago...) eta larrutik ordaindu da: herriaren konfiantza galdu, etsaiei jokoa eman, estrategia politiko-militarraren porrota areagotu, jendartearen ikaragarritzko zauriak ireki... Alta, independentziaren alde eta frankismoaren aurka eginak, trantsizio kapitalistari borroka, ez dira ahantziak izan; errepresioak, torturak eta kartzelen injustiziek elikatu dute ETArek sostengua, gaur egun arte iraun duena. Errelatoa nahasia da. Egin dezagun osoa eta zintzoa.

4. Biktimen arazoa. Biktime zibilei mugatu, otoi. Akzioan erori gerlariak ez dira biktimak; bando bakoitzak bereak ohora ditzan, hoberenean beste bandoaren errespetuarekin. Gerlak, gogorra izanik, baditu bere legeak. Berriz, jende eskubideen aurkako

» Errelato ederrenak ez du errealitatea aldatuko, ez baita klase sozialen eta multzo nazionalen arteko indar harremanen gaitetik pasatuko »



Idatziak idatzi, aipatzeke gelditu zait “bortizkeria” kondenatzeko gurutzada. Kapitalismoak hondamendira eramaten gaituen, ezetz insurrekzio eskubideari! Estalinismo autoritarioaren egitate ezkorak iraultzaren fruitu bakarrak balira, ahantz eta arbuia askatasunaren historian ugari diren esperientzia libertario eta demokratikoak! Ez, begira gazte horiek, hiri handi bateko goiz ilunean, fusila lepoan eta begitartean irri zabal magnifikoa, iraultzaren irria. Gureak dira. Bai, gure oraingo egoera ez da insurrekziarako, baina ez lotsa, desobedientziarako eskubideei mugarik jarri gabe lan egin daiteke demokrazian, iraultza helburu.

ekintzek, horiek bai merezi dituzte azalpenak eta barkamen eskea, elkarbizitza bideratzearren.

5. Estrategia politiko-militarraren ondoan, zer? Ezker abertzalean, “ofizialtasunaren” barnetik nola kanpotik, ETArek behin-betiko gelditzea proposatua zen disidentzia independentistari bide berriak, erradikalak eta iraultzaileak irekitzeko. Orain, oro da demokrazia, eta bide bakarrak, demokratikoak. Omen, horrela lor daitezke azken helburuak. Langile mugimenduan gauza bera errana zen XIX. mendeko bukaeran; estrategia horri sozialdemokrazia deitzen zaio, eta eman dituen ondorioak ezagunak: sozialdemokratak, iraultzen ehorzleak eta kapitalismoaren gestoreak. Usu, joera berdinek ondorio berak ematen dituzte, bultzatzaileen ilusioen gainetik.
6. Ezker abertzalearen birsortzea. Hautesleek Batasuna saritu dute: estrategia politiko-militarraren derrota garaipen elektoral bilakatu du eta indarrean dago Batasuna. Baina estrategia zaharra luzatu duten berberak dira prozesu berritzaileen eramaileak, salbuespenak salbuespen: ezker abertzale iraultzaile eta demokratikoa nahi duten askorentzat, gogortxo da politika sozialdemokrata aldarrikatzen duten aspaldiko leninisten nagusitza onartzea. Bestalde, Aralarren eta Abertzaleen Batasunean nahikoa jendeak konfiantza egiten dio Euskal Herria Bai bezalako formulei. Bada elkarri zer frogatzeko beharra.
7. Autokritika. Nire ustez, egin behar da. Zergatik ez, borroka armatua hautatu dutenen motiboen errespetuari atxikia eta amodiozko istorioen kontari, baina onartuz lerratze estrategiko terroristaren hutsa: horrela bidea irekiko litzaieke ETArengandik berezitu ziren “traidoreen” estimuari eta biktima zibilen errekonozimenduari. Beti gogoan ditut 2001 eta 2002ko ETa Abertzaleen Batasuneko militanteei erranak: “Torturaztaileekin kolaboratzen duten traidoreak”... Gauza batzuk ez dira aipatu gabe sendatzen.
8. Aurrera beti. Aldebakartasuna zen ETari gelditzen zitzaion posibilitate bakarra, eta urratsa eman du. Badirudi estatuen urratsak ez direla segurtatuak: haien behartzeko, presoen askatasuna eta aukera guztien legalizazioa lortzeko, eta halaber ezker abertzalea independentzia, sozialismoa eta duintasunaren inguruan biltzeko, fin eta gogor jokatu behar da. Krisi sozial eta ekonomiko handi baten erdian jokatu. Demokrazian lan egin, baina desobedientzia eta insurrekziarako eskubideei mugarik jarri gabe.



Bero-beroan

ONINTZA IRURETA AZKUNE

“Txepetx”i elkarriketa

DUELA ASTE BATZUK orrialde hone-tan esan genuen nola Txerra Rodri-guezek Jose María Sánchez Carrión *Txepetx* hizkuntzalariaren hitzaldi baten berri eman zuen, bere blo-gean. Urte luzez isilik egon ondoren, jendaurrean agertu zen Galizian eta Txerra Rodriguezek eta Marije Man-terolak elkarriketa egiteko baliatu zuten.

Elkarriketa osoa irakurtzeko jo Txerra Rodríguez

www.blogak.com/garaigoikoa blogera. Ondoko lerroetara hizketaldiko hainbat pasarte ekarri dugu:

“Lan asko egin dut urte hauetan isiltasunean eta isiltasunetik. Hartu-emanak izan ditut bereziki bizitza-ren hizkuntzaren bideko tramu horretan zebilen jendearekin. 2007an Indian izan nintzen, herri indigenekin asko ibili naiz (horiek ere isiltasunaren aldekoak dira), lana egin dut ikerlari batzuekin (Iñaki

Larrañaga, Alain Masson, Nidia Arrobo, Kolonbiako jakintsu indi-gena batzuekin besteen artean ...).

Isiltasun bide hori bukatutzat jotzen dut momentu honetan? Ez dut uste. Zentzu sozialean uste dut badaudela datu kontraesankorrak. Egoera gero eta larriagoa da, baina ez bakarrik hizkuntzaren ikuspegit-ik, bizi-iraupenaren ikuspegitik. (...)

Zein identitate? Bide baten semea naiz, nire bidearen semea naiz. Hiz-kuntzaren semea naiz. Komunitate euskaldunarekin bat egin dut bidean, baina ez modu berezian, ez baldintzagabeko moduan, ez “odo-laren legeaz”... beste hizkuntza askorekin egin dudana modu berean baizik, erabaki emankor bezain inkomodoa, maitagarri bezain latza, bizitzak berak erakusten dizkigun baldintzak onartuz ... eta kontzien-tziaren legeaz, beraz. (...)

Herri linguistikoak kokapen fisi-koa behar du, baina ez da bere espa-zio bakarra. Espazio birtuala ere

hizkuntza baten espazioa da. Eus-kararen funtzio guztiak euskaraz egin daitezke, gaur egun, Australian. Horrek garai bateko traba kendu behar digu, orain 30 urteko traba, hain zuzen ere. Immigrazioak sor-tzen duen beldurra gehiegizkoa da, beraz.

Ereduak kopiatu beharrean berezko modeloak bultzatu behar dira, geneukana, oinarritzkoa galdu gabe. Levanteko kostaldeko herri batzuetan hizkuntza anitz elkarbizi dira —ondo ezagutzen dudana batean, esaterako, 35 hizkuntza: Europako, Afrikako eta Asiakoak—. Bizitzaren amaieran daudenek ez dute hizkuntza ikasten, beraien komunitatean bizi dira. Elebidunez —beraien bilobak, gehienetan baliatzen dira beraien beharrak asetzeko. Haur horiek gutxienez hiru hizkun-tza baliatzen dituzte. Hizkuntzen aldeko jarrera horrek duen abantaila ikusteak du eragin handiena immigrantearengan”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Doikuntza deitzen diete murrizketei

Krisi ekonomikoaren garaietan denak balio du. Izen berriak asmatzen dira errealitatea manipulatzeko. Tun-tuntzat hartzen gaituzte herritarrok eta batez ere krisia jasan behar dutenak. Gobernuak eta administrazio publikoek gehien erabiltzen duten hitzetako bat “doi-kuntza” da, ekonomiaren, gizartearen eta lan arloaren egoera berriak behar omen duena. “Doikuntza” deitzen diote, langileek, irakasleek, osasungintzan dabilta-nek, bekadunek eta bereziki langabetuek, pobreek eta immigranteek sufritzen duten murrizketa sozial hutsa-ri. Murrizketa horiek lana deuseztatu eta prekarieta-tea, pobrezia eta bazterketa gehiago besterik ez dute sortzen.

Hori ondoriozta daiteke joan den astean EAEko eta Nafarroako gobernuak aurkeztutako 2012ko aurrekon-tuetatik. Nafarroan, aurrekontuek batez ere osasungin-tzan, hezkuntzan eta langile publikoen soldatetan era-gingo dute negatiboki. Joan den astean manifestazio jendetsuak izan dira Nafarroan murrizketen kontra eta

kalitatezko hezkuntzaren alde. EAEn, bestalde, Lakuako Gobernuak iragarritako “doikuntzek”, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentara bideratutako diru kopurua %7 jaitsiko dute. Doikuntza horiek, murrizketa hutsak, ego-era prekarioenean dauden gizarteko sektoreak dituzte jomuga, pobreenak, eta babesik gabe eta baztertuta daudenak. Egun milaka lagun dago egoera horretan. Ez dago dirurik pobreentzat, baina bai zementuaren eta adreiluaren enpresarientzat, haien obrak, AHTa kasu, ez baitira ukitzen! Eta aberastasunaren banaketan irtenbideak bilatu beharrean, alde ahulenari murrizten jarduten dira. Horiek dira beren “doikuntzak”, bai PSE-PPren Gobernuarenak eta baita UPN-PSNren Gobernuarenak ere. Biak ala biak “merkaturen” zerbitzura, kri-sia sortu dutenen zerbitzura!

Juan Mari Arregi



Otegi kanpainen: barrutik ala kanpotik?

ETA-REN amaierak hartu du euskal politikaren ardatza, normala den moduan eta, apurka, borroka armatuaren ondorengo lerro nagusiak marrazten hasi dira.

Elkarrizketak publikoki egiten ari dira, bai Patxi Lopez lehendakariak bideratuta eta baita alderdiek eurek ere, EAJ eta ezker abertzalearen artekoak adibide. Lopez saiatzen ari da lider baten gisara jarduten baina nekeza du, ez baitu lidergorik bere alderditik at, eta bere alderdian ere ikusi egin behar. ETArek agiriak AEBetako tren batean harrapatu izana bizitza osorako bizkarrean izango du dagoeneko. Hori edozein lehendakari gerta zekion, aurretik Donostiako Aieteko Konferentzia egon ez balitz, baina Kofi Annan eta enparauen bisitarekin zetorre-na iragartzen ari zen, eta hala ere ospa egin zuen.

Baina bestelako keinu batzuekin ere oso kontuz ibili beharko du Lopez lehendakariak, aurrera begira aintzat hartua izan nahi badu bederen. ETArek amaierako balizko ekitaldia dela eta nabarmen geratu da berriz ere, eta horrek ez dio mesede egiten bere figura instituzionalari, noiz eta lehendakariaren zeregina oso garrantzitsua izan beharko lukeen unean.

EZKER ABERTZALEKO kide den Haxier Arraizek idatzi zuen *Gara*-n ETArek agiriaren ondorenean, ustezko garaileak haserre zirela, eta ustezko galtzaileak pozik eta esperantzaz ikusten zituela. Eta emanda gisa horretako zerbait ETArek agiriaren ondoren. PP eta PSE-EEk argi adierazi dute beren poza, batez ere gainetik kentzen duten mehatxuegatik; baita alor politikoan "demo-



ARGAZKI PRESS / GARI GARAIALDE

kraziak ETA garaitu duelako". Baina ez dira erabat pozik, eta batzuetan haserre agertzen dira, euskal gizarteak, oro har, ez duelako irensten garaitu eta garaileen diskurtsorik; mendekurik ere ez (berau legearekin mozorrotzen bada ere); sumatzen dutelako ezker abertzalearen norabide aldaketan ikuspegi pragmatikoa erabakigarria izan dela —eta ez hainbeste demokratiko edo etikoa, adibidez—, ustezko garai-tuak pozik ikusten dituztelako...

Eta ETArek amaierak poza nonahi barreiatu badu ere, familia politiko bakoitzean izango da pozik eta haserre egoteko arrazoirik. Horiek dira, elkarrizketaren bidez, aurrera begira baretu beharko lirakeenak. Bildu eta Patxi Lopezek artekoaren ondoren, hurrengo urratsa ezker abertzalea eta PSE-EEren artekoa izango da seguruenik eta azkena ezker abertzalea eta PPren artekoa. Erakundeetan hitz egiten dutenek zergez, krisiaz, autobus geltokiez, zaborrez... nola ez dute ba hitz egingo bakeaz eta normalizazio prozesuaz?

Eta nola hitz egin? Aieteko Adierazpenaren ordena eta edukiak oso argiak dira eta gero eta gehiago dira orden horren alde hitz egiten dutenak. Zorionez, garrantzitsuena ez da Aieteko bidetik edo Legebiltzarren bidetik, bidea litzateke gutxienean Aieten finkatutako urrats

guztiak beteko balira, eta Euskal Herri guztian hitz eginga balitz hobeto. Hara etxeko lana: Aieteko agendako 2. puntua ondorioena da, gaur eta hemen horrek presoak esan nahi du.

PRESIOAREKIN kontuz ibili behar da, batzuetan presioak zerbait ireki baino blokeatu egin

dezake eta. Eta ahal bada presioa kontrolatu egin behar da, baina presoen gaian presioa berez joango da metatzen, inolako mugimendurik ez bada bederen. Nondik hasi oso erraza da, hainbeste aukera daude zarata handi barik mugimendu eraginkorrak egiteko!

Beste kasu batzuetan, presioa gobernuen gainean metatzen ari da dagoeneko eta hobe hori lehenbaila gainetik kentzea. Idoia Mendia Eusko Jaurlaritzako bozemai-leak berak galdetu zuen Arnaldo Otegi espetxean jarraitzea justua eta arrazoizkoa ote den bere epaia oraindik irmoa ez bada.

Bai, Otegi eta Bateragunekoa eskandaluzkoena da akaso —haien jardunak ETArek amaiera ekarri duelako—, baina izaera berekoak dira beren jardun politiko hutsagatik espetxean diren Segikoak, Askatasuna edota 18/98 auzikoak.

Kontua da Otegiarena bereziki pikantea dela gobernuentzat eta, zorionez, Espainiako Justiziak oraindik baduela auzia emendatzeko aukerarik, Justizia ataka estu horretatik ateraez. Bestela lider sendo bat gizentzen jarraituko dute. Funtsean zera erabaki behar dute, ea zer den hobe Otegi Amaiurren aldeko kanpaina espetxe barrutik edo kanpotik egitea.



PELLO ZUBIRIA

Nendo Dango: hazitik hasita mundua oihantzeko

Noizbait basoz beteta egon zen ludia berriro oihanez beztitu beharra dago, edonork dakienez. Itsasoaz gain, zuhaizpeetan datza bioaniztasuna, klimaren erregulazioa eta elikadurak ekoizteko beharrezkoa den lurzorua bera. Masanobu Fukuokak asmatutako “Nendo Dango” teknika gero eta gehiagok darabilte paraje elkorak basoberritzeko.

GUEÑESKO (BIZKAIA) SODUPE auzoko haurrek eta udal hartan basoen arduraduna den Joseba Garcia Lizarralde iraultza txiki bat ekarri zioten Euskal Herriari 2010eko otsailean. Julen Nafarrate kazetariak honela kontatu zuen *Berrian*: “Ezer egin barik, landatuz. Basoak birlan-datzeko ohiz kanpoko bidea jarraitu dute Gueñesen. Zuhaitz Egunaren harira, gorostiak landatu dituzte Nendo Dango teknika japoniarra jarraituz”. Ereiteak bi krisiri aurre egiteko balio izan die gueñestarrei.

Kronikan Garcia Lizarralde iradoki zion kazetariari duela bi urte Udalak murriztu egin behar izan zuela haur eta gaztetxoekin mendiak basoberritzeko zeukan aurrekontua. Ekonomiak egin duen gainbeherarekin, 2011n ez dira aberatsago egongo. Landareak erostea baino merkeago ateratzen da haurrak mendira eramanez, arboletatik edo orbel artetik haziak jaso eta haiek buztinezko pilotatxotan bilduta ereitea.

Nendo Dangok irauli nahi duen beste krisia ingurumenaren hondatzea bera da. Munduak zuhaitzak eskas ditu. Eta baso berriak landatzen hasitakoan, efikazia gutxiko sistemak usatzen ditugu gizakiok: oso nekez haziko diren landareak sartzeko zulogintzan, lehendik indarra galdua dauzkaten lurzorua lan horiekin gehiago andeatzen ditugu.

Nendo Dango teknika Masanobu Fukuoka (1913-2008) japoniarrak asmatu zuen. Soroetan zuhaitzak eta bestelako uztak ematen dituzten landareak uztartu eta elkarlanean modu ahalik eta naturalenean hazten saiatu zen Fukuoka, eta nekazaritza ekologikoaren lauzpabost erreferentzia nagusietako bat da. Permakulturan ari direnek aitortzen diote nagusitasuna, goldatu gabeko nekazaritzan ari direnetako gehienek bezala.

Mundua basamortutzeko bidean doala eta asmatu zuen Nendo Dango, funtsean zera dena: ahalik eta modu erraz eta merkeenean lortzea ahalik eta zuhaitz gehien erne eta haztea, oihan berri iraunkorrek osatuz, zuhaitz, sastraka eta belarriak batean ereinda bolatxoetan.

Teknika sinplea da. Buztinezko bai pilotatxo edo puxtarriak, edo bai opil txiki edo diskoak egin, barruan daramatzatelarik erein nahi diren haziak. Horrela pilota edo opiltxo bakoitzak barruan hiru hazi mota eramango ditu. Batetik, lehen euriekin erneko diren belar eta lekaleak. Horiekin batean zuhaixka eta sastraken haziak. Eta azkenik, aurrekoek antolatutako ekosisteman errazago erne eta sustraituko diren arbola eta zuhaitzenak.

Denbora batez idortzen utzi diren bolatxo hauek gero eramango dira baso berria sortzen ikusi nahi den

Irudiko neska-mutikoak ez dira Gueñesekoak, Kantabriako Maliano herrikoak baizik. *Grupo de Scout Cachón* taldeari hartu diogu blogetik. Nendo Dangotarako hautaturiko haziak nahasten dituzte buztinarekin eta konpostarekin, ondoren aste batzuetan lehortzen uzteko. Beranduago, alferrik galtzen utzitako lur muturren batean jaurtikiko dituzte. Teknika hau bera erabiltzen dute hiri handietan *Guerrilla Gardening* (Gerri-lazko baratze-gintza) burutzen duten militantek, abandonatutako orubeetan edo zaborrak pilotzeko baizik usatzen ez diren txoko sasitsueta loreak, arbolak edo barazkiak jaio daitezen. Lurrean zuloak eginda arbola gazteak aldatzea baino diru eta energia gutxiago eskatzen du, esfortzu berarekin eremu zabalagoan askoz landare gehiago erein daitezke. Hazietan belarki, sastraka eta zuhaitzenak ondo orekatuz gero, arrakasta segurtatuta dago.

lekura, jaurti aliritzira, eta *aio, Pelaio*. Naturak egingen du bere lana. Euriarekin, babesgarri eduki duten buztinetik hasiko dira ernetzen haziak bata bestearen segidan.

Fukuokak bi txori jo nahi zituen koxkorrokin. Batetik, ahal bezain gutxi urratu lurra, nekazaritzan ere zerabilen *Wu-Wei* (Ez egin) taoistari jarraiki. Bestetik, ahalik eta zuhaitzik gehiena erein. Munduaren idortzeak kezkatzen zuen. Azken elkarrizketako batean kazetari bati bukaeran bota zion: “Esaten dizut liburuak harrika botatzeko, ez duzuela hainbeste pentsatu behar. Artikuluan jar ezazu nahi duzuna, baina azken lerroetan ipini: ‘Elkarrizketa honek ez du ezertarako balio’. Buztinezko bolatxoak erein behar ditugu fite, ez zaigu eta astirik geratzen”.

Alternatiba: sastrakak kimatzea

Munduan basamortu bilakatzen ari diren eremuetan erraz eta zabal usatzeko modukoa da Nendo Dangoa. Fukuoka beraren ametsa horixe zen, hain zuzen, hazi bolatxoak modu masiboan ereitea, baita hegazkinak eta helikopteroak erabiliz ere, buztinezko pilotak modu ia industrialean ekoizturik.

Zuhaitzak eta soroa integratzen dituzten laborantza teknikak gero eta zabalduagoak daude mundu osoan. Basoetan milaka urtez ondu



tzagai nagusi, baina hizlarien artean Tony Rinaudo-k lezio interesgarri hau aurkeztu zuen: *Basamortutzeari gaina hartuz eremu idorretan.*

Australiako World Vision Gobernu Kanpoko Erakundeko kide den Rinaudok erakutsi zituen FMNR *Farmer Managed Natural Regeneration* (Laborariek kudeatutako naturaren lehengoratzea) sistemarekin lortutako fruituak. Kasik erabat idortutako parajeetan ere geratzen dira sastrakak, zuhaitz txikiak edo ebakitako arbolen ipurdietan nola edo hala bizi diren kimuak. Puja ahulok zaindu, kimatu eta ugaritzetik sortzen dituzte baso berriak FMNR teknikarekin.

Herri bakoitzean baserritarrek mugatzen dute oihandu nahi duten eremua, hautatzen zein adar utzi aurrerako eta zein kimatu, landare gazteak aziendetatik babesteko neurriak hartzen, suak borrokatzen, eta abar.

Auzolanak urte gutxitan ematen dituen fruituak erakutsi zituen Rinaudok diapositibetan, abantailak aletuz: egurra hurbildu herrietara bilketara joan behar duten haur eta emakumeen mesedetan, etxegintza eta tresnetarako zura, elikadura ugaritzea, lurzorua kalitatea hobetzea, higadura gutxitu eta lurpeko urak eta iturriak aberastea, basoko hegazti eta piztiak itzultzea, eta abar.

Hazi ereitea eta kimaketa burutsua, batek ez du bestea kentzen. Fukuoka bietan ariko zen gustora, naturari lagunduz gizakiaren ahalik eta indar txikinez. *Wu-Wa*, alegia. ■



den lurlean hazten baitira gizakion elikadura bermatzen duten landareak. Mende luzeetako ustiatze ezjakinaren ondoren, soroek basoen laguntza eskatzen dute denetan.

Zuhaitz adaxka txikituak (BRF *Bois Raméal Fragmenté*, frantsesez) asko lezake lurra zaharberitu edo sendatzeko prozesuan. Horrek esplikatzeko du zuraren eta sutarako egurraren beharraz gain, prefostamundu osoko nekazari askoren artean zuhaitz landaketa edo ereiteak piztu duen interesa. BRFa egiteko ez dira zuhaitz handiak behar, 7 zentimetroko diametroa baino txikiagoko adaxkak birrintzen dira.

Basamortuak gizakia behartu duen erlojupeko lasterketan asko ari dira munduan saiatzen. Hil berria

da Wangari Maathai nobel saridun kenyatarra, sortu zuen Green Belt Mouvementen bidez lortu duena Kenyan eta Afrikako beste herrialde batzuetan milioika zuhaitz berri landatzea, funtsean baserrietako emakumeek beren gain hartutako lanarekin. Horiek gehien bat mintegietan erretako zuhaitz txikiak landatzen dituzte. Baina nola lortu basoak are gehiago ugaritzea?

Trailean Jordanian burutu dute permakulturaren nazioarteko 10. biltzarra. Permakultura mugimendu zabal eta anitza da mundu osoan (Australian sortu zuen Bill Morrisonek) eta bi hitzetan esanda, gizakiak bere behar guztiak modu iraunkorrean asetzeko moduak lantzen ditu. Jordaniakoan ura zuten min-





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Mikel Irizar

Diputazioak

K

risia luzatzen ari da eta defizit publikoa murrizteko administrazioa mehetu beharra aipatzen da. Aldundiak kentzea proposatu zuen Rubalcabak eta horrek gurean berpiztu egin du lurralde historikoen auzia. Bestalde, ETArek adierazpenak atak ireki ditu gehiengo berriak osatzeko. Osagaiak baditugu koketela prestatzen hasteko.



DANI BLANCO

ez da maila bat edo beste kentzea, daudenak arrazionalizatzea baino. Horretarako ezinbestekoa deritzot hautetsi gutxiago izateari. Nola? Bada, kargu ezberdinen arteko inkompatibilitateak ezabatuta. Batzar Nagusietako kide bat aldi berean Legebiltzarreko kide izanda, gastua erdira dator. Eta ez luke lan doblea egin behar. Hautetsien lana ez da kudeaketa aritzea, horretarako daude administrazioako teknikariak. Hautetsiek norabidea jarri behar dute eta jarduera kontrolatu.

Bide batez, hautetsi bera maila ezberdinetan egonda, bateko eta besteko ikuspegiak integratu egingo lituzke, erakunde arteko gatazkak leunduz.

ALDUNDI SUBIRANOAK. Espainiako legedi gorenan –Konstituzioan– euskal Aldundiak dira eskubide historikoen jabe eta hortik datorkie, esaterako, zergak biltzeko eskumen berezkoa. Eusko Jaurlaritzak estatus juridiko ahulagoa du, Murtziaren parekoa. Horregatik, erabakitze eskubideari oinarri juridikoa bilatu nahi izan zaionetan, eskubide historikoetara jo izan da. Bestalde, ez da ahaztu behar inoiz hegoaldeko lau lurraldeak bateratzekotan, formularik egingarria izan daitekeela lau Aldundien konfederazio bat.

Ez da gorrin foruzalea, kontu praktikoa baizik. Espainiak egin dezala nahi duena, baina guk ez genituzke Aldundi subiranoak ukitu behar euskal eskubide historikoen jabetza beste erakunderen bati aitortzen ez zaion bitartean.

ESPARRU FUNTZIONALAK. Zerbitzu publikoen antolaketa asko garatu da azken hamarkadetan, baina antolaketa esparruak oraindik zaharrak dira. Udala berez ez da unitate funtzionala, gehienak txikiak direla, eta batzuk handiak. Eta foru hauteskundeetan oraindik partidu judizialak erabiltzen ditugu, nahiz inork gutxi dakien zein diren ere.

Horiek baino egokiagoa da esparru funtzionala, 50.000-100.000 biztanle tarteko zonalde geografikoa, ezaugarri komunak dituen. Gipuzkoan eta Bizkaian erraz uztartu daiteke eskualde-mankomunitateekin, eta Araban zein Nafarroan ere ez litzateke zaila.

HAUTETSI GUTXIAGO. Administrazioa mehetzeko kontua

ZIRRIBORRO BAT. Demagun hegoalde osoan hautes-prozesu bakar bat egiten dugula lau urtekin behin. Hautes-esparrua litzateke esparru funtzionalen arabera eskualde edo distritu-urbanoa. Hor aukeratuko genituzke 6-8 hautetsi eta horiek osatuko lukete mankomunitatearen gobernu kontseilua. Udaletan teknikariak bakarrik leudeke, mankomunitateak ezarritako politikak gauzatzen.

Hautetsi horiek beraiek osatuko lukete, beste eskualdeetakoekin batera, lurraldeko Batzar Nagusia, eta hortik irtengo litzateke Aldundia. Honen funtzio nagusiak lirateke zerga bilketa, mankomunitateen koordinazioa eta Jaurlaritzarekin adostutako eskumen banaketan dagozkionak kudeatzea.

Azkenik lurralde bakoitzeko Batzar Nagusiak izendatuko lituzke bere kideen artean Legebiltzarrean legezkiokkeen ordezkariak. Eta ez guztiek kopuru berdina, hori apurtzeko ordua ere etorri da. Lurralde bakoitzak pisu bat dauka populazioan eta barne produktuan, beraz, horien edo antzeko parametroen arabera ordezkari portzentaje bat behar luke izan goi ganberan.

Hasiko gara serio hitz egingen? ■



«
Administrazioa mehetzeko kontua ez da
maila bat edo beste kentzea, daudenak
arrazionalizatzea baino. Horretarako
ezinbestekoa deritzot hautetsi gutxiago
izateari. Nola? Bada, karguen arteko
inkompatibilitateak ezabatuta. Batzar
Nagusietako kide bat aldi berean
Legebiltzarreko kide izanda,
gastua erdira dator
»

ASTE HONETAKO

zozketa



Txondorra erretegia

Harpidedun batentzat
lau lagunentzako afaria

Bizkaia etorbidea, 9/9
Arrasate GIPUZKOA

www.txondorra-sagardotegi.com

1



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

2




Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

3



Ez dugu nahi

Edurne Elizondo

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Artez euskara zerbitzua

2011-2012
4 lizeo agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

5

AZKEN IRABAZLEAK (2295. Argia)

ANDRA MARI Jatetxea

- Karmelo Busturia Jimeno (Donostia)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Migel Anjel Mintegi Larraza (Beasain)
- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)

JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

- Asier Alvarez De Eulate Mujika (Ordizia)
- Manu Urruzola Aranzabe (Alkiza)
- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- M. Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)
- Josu Jimenez Muro (Donostia)
- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)

HAURTZAINDEGI AGENDA Artez Euskara Zerbitzua

- Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar)
- Edurne Arizabalaga Basterretxea (Ondarroa)
- Etumeta Euskaltzgia (Usurbil)
- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)
- Jaione Goienola Guarrotxena (Galdakao)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

